Enplegu Publikoaren Eskaintza 2016-2017

***Loregintza teknikari espezialista***

Galdera sorta

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# ATAL OROKORRA

1. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen III. Hitzarmen Kolektiboaren 15. artikuluak hauei egiten die erreferentzia:**

**a)** Baimenei.
**b)** Espainiako Konstituzioari.
**c)** Gizarte Funtsari.
**d)** Lanpostu hutsak betetzeari.

2. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, enplegatu publiko dira herri-administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak zeregin hauetan...**

**a)** Interes orokorrak zaintzeko zereginetan.
**b)** Enpresa kontratatzailearen interesak zaintzeko zereginetan.
**c)** Autonomia-gobernuaren interesak zaintzeko zereginetan.
**d)** Gobernu Zentralaren interesak zaintzeko zereginetan.

3. **Eskubide hauetatik zein jasotzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 15. artikuluan?:**

**a)** Askatasun sindikala izatekoa.
**b)** Oporrak izatekoa.
**c)** Indarreko araudiaren arabera erretiratzekoa.
**d)** Adierazpen-askatasuna izatekoa.

4. **Zeri buruzkoa da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren III. kapitulua?**

**a)** Ordainsari-eskubideak.
**b)** Oinarrizko eskubideak.
**c)** Biltzeko eskubidea.
**d)** Lanaldia, baimenak eta oporrak izateko eskubidea.

5. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer sistemaren bidez hauta litezke lan-kontratudun langile finkoak?.**

**a)** Oposizioa, oposizio-lehiaketa edo merezimenduak balioesteko lehiaketa.
**b)** Oposizioa edo oposizio-lehiaketa.
**c)** Oposizioa.
**d)** Berariaz egindako lan-poltsa.

6. **Ez da izango karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoia:.**

**a)** Nazionalitatea galtzea.
**b)** Funtzionarioak erabateko erretiroa hartzea.
**c)** Funtzionario izateari uko egitea.
**d)** Lanerako aldi baterako ezintasuna.

7. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, honela sailkatuko dira langile lan-kontratudunak:**

**a)** Lan-arloko legeriaren arabera.
**b)** Enpresa-batzordearen barne-akordioen arabera.
**c)** 1996ko urriaren 23ko akordio arautzailearen arabera.
**d)** Estatuaren Aurrekontu Orokorretako xedapen gehigarrien arabera.

8. **Zer falta motatzat joko da greba-eskubidea askatasunez baliatzea eragozteko egintzak egitea?**

**a)** Falta astuntzat.
**b)** Falta arintzat.
**c)** Falta oso larria.
**d)** Diziplinazkoa ez den faltatzat.

9. **Zeinek izango du UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen III. Hitzarmenaren interpretazioak sor ditzakeen arazoak aztertu eta konpontzeko eskumena?.**

**a)** Batzorde Parekideak.
**b)** Negoziazio Batzordeak.
**c)** Enpresa Batzordeak.
**d)** Plangintza Batzordeak.

10. **Nolakoa da UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzua?**

**a)** Berezko zerbitzua.
**b)** Besteren zerbitzua.
**c)** Enpresaburuak pertsonalki onartutako zerbitzua.
**d)** Esleitutako langile baten bidezko zerbitzua.

11. **UPV/EHU-koak ez diren pertsonek edo erakundeek ezin izango dute erabili unibertsitatearen zigilua, baldin eta horretarako baimena ematen ez badie berenberegi:**

**a)** Errektoreak.
**b)** Gerenteak.
**c)** Unibertsitateko Klaustroak.
**d)** Gobernu Kontseiluak.

12. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz eta legeek diotena kontuan hartuta, UPV/EHU-k honela jarduten du:**

**a)** Foru-erregimenean.
**b)** Autonomiaz.
**c)** Mendekotasun funtzionalez.
**d)** Eskumen eskuordetuen erregimenean.

13. **UPV/EHU-k, bere Estatutuen 5.3 artikuluan, hau onartu eta bermatzen du:**

**a)** Adierazpen-askatasuna.
**b)** Erlijio-askatasuna.
**c)** Katedra-askatasuna.
**d)** Pentsamendu-askatasuna.

14. **UPV/EHU-n, hizkuntza ofizialak hauek dira:**

**a)** Euskara, gaztelania eta ingelesa.
**b)** Euskara eta ingelesa.
**c)** Gaztelania eta ingelesa.
**d)** Euskara eta gaztelania.

15. **Zein da UPV/EHU-ren kide bakarreko organoa?**

**a)** Gizarte Kontseilua.
**b)** Gobernu Kontseilua.
**c)** Errektorea.
**d)** Bizkaiko Campuseko Batzarra.

16. **Unibertsitateko kideak talde hauetan banatzen dira:**

**a)** Ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
**b)** Ikasleak eta langile autonomoak.
**c)** Irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
**d)** Ikasleak, langile autonomoak eta zuzendaritzako karguak.

17. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, nork ezarriko ditu administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariak?**

**a)** Errektoreak.
**b)** Unibertsitateko Klaustroak.
**c)** Enpresa Batzordeak.
**d)** Gobernu Kontseiluak.

18. **UPV/EHU-ren Estatutuen arabera, langile lan-kontratudunak honela sailkatuko dira:**

**a)** Ikastegietako batzarren akordioen arabera.
**b)** Indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera.
**c)** Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera.
**d)** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera.

19. **UPV/EHU-ren Estatutuen arabera, UPV/EHU-ko langile funtzionarioak edo lan-kontratu finkoko langileak hautatzeko egingo diren probetako oinarrietan, hauek adierazi beharko dira, nahitaez:**

**a)** Lehiakideek bete beharko dituzten baldintzak.
**b)** Epaimahaiko kideen izen-deiturak.
**c)** Deialdiari dagozkion zuzkidurak.
**d)** Emaitzak argitaratuko diren data.

20. **Zeini dagokio administrazio eta zerbitzuetako langileen karrera profesionalari buruzko arautegia garatzea?**

**a)** Unibertsitateko Klaustroari.
**b)** Gizarte Kontseiluari.
**c)** Gobernu Kontseiluari.
**d)** Enpresa Batzordeari.

21. **Zein da lan-kontratudun langileen ordezkaritza-organo bateratua?**

**a)** Langileen Batzarra.
**b)** Enpresa Batzordea.
**c)** Gobernu Kontseilua.
**d)** Unibertsitateko Klaustroa.

22. **Zein da administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen ordezkaritza-organo bateratua?**

**a)** Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
**b)** Enpresa Batzordea.
**c)** Gobernu Kontseilua.
**d)** Unibertsitateko Klaustroa.

23. **Zeinek hartuko ditu ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen diziplina-araubideari buruzko erabakiak, indarrean dagoen legeriak beste organo bati esleitzen ez badizkio?**

**a)** Aldezleak.
**b)** Errektoreak.
**c)** Arbitraje Batzordeak.
**d)** Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak.

24. **Unibertsitateko jarduera guztiekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebazteko bide alternatiboak, aurkakoak izango ez direnak, bultzatuko dituen erakunde burujabe eta inpartziala da:**

**a)** Aldezlea.
**b)** Enpresa Batzordea.
**c)** Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea.
**d)** Errektorea.

25. **Aldezle izateko hautagaia:**

**a)** Gobernu Kontseiluak proposatu eta aukeratuko du.
**b)** Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta aukeratuko du.
**c)** Gobernu Kontseiluak proposatu eta Unibertsitateko Klaustroak aukeratuko du.
**d)** Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta Gobernu Kontseiluak aukeratuko du.

26. **Aldezleak ez du hartuko parte:**

**a)** Ofizioz.
**b)** Hauteskunde-prozeduretan.
**c)** Alde batek eskatuta.
**d)** Unibertsitateko edozein kidek aurkeztutako kexetatik abiatuta.

27. **Aldezlearen gomendioen aurka errekurtsoa jarri ahalko da:**

**a)** Errektorea zerikusia duen alderdia denean.
**b)** Ezingo da jarri errekurtsorik.
**c)** Beti jarri ahal izango da errekurtsoa.
**d)** Unibertsitateko talde handi bati eragiten dionean.

28. **Zeinen eskumena da graduondoko ikasketen helburuak onartzeko proposamena egitea gobernu-kontseiluari?**

**a)** Graduko Batzordearena.
**b)** Graduondoko Batzordearena.
**c)** Berezko Titulazioen Batzordearena.
**d)** Errektorearena.

29. **Unibertsitateko biblioteka ikasteko, irakasteko eta ikertzeko baliabideen gunea da, bai eta hauekin zerikusia daukaten bestelako jarduerak aurrera eramateko baliabideena ere:**

**a)** Unibertsitate osoaren funtzionamendua eta kudeaketa.
**b)** Ikasleen ikasteko gaitasuna garatzea.
**c)** Irakasleen ikertzeko gaitasuna.
**d)** Gizarteari zerbitzua ematea.

30. **UPV/EHU-k hizkuntza ofizial hauen erabilera normal eta ofiziala bermatuko du:**

**a)** Euskara, gaztelania eta ingelesa.
**b)** Ingelesa eta gaztelania.
**c)** Ingelesa eta euskara.
**d)** Euskara eta gaztelania.

31. **UPV/EHU-n, organo honek zehaztuko du zein lanpostutan izango den nahitaezko euskara eta gaztelania jakitea:**

**a)** Gobernu Kontseiluak.
**b)** Unibertsitateko Klaustroak.
**c)** Enpresa Batzordeak.
**d)** Langileen Batzarrak.

32. **UPV/EHU-n, honi dagokio campusak aldatzea:**

**a)** Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Klaustroaren proposamenari jarraituz.
**b)** Unibertsitateko Klaustroari, Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz.
**c)** Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Campusaren proposamenari jarraituz.
**d)** Unibertsitateko Campusari, bere proposamenari jarraituz.

33. **Hau da UPV/EHU-ko kontratazio-organoa, ahalmen hori eskuordetu badezake ere:**

**a)** Gerentea.
**b)** Errektorea.
**c)** Kontratazio eta erosketen gerenteordea.
**d)** Unibertsitateko Klaustroa.

34. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua hauei aplikatzen zaie, besteak beste:**

**a)** Unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
**b)** Unibertsitate publikoetako langile lan-kontratudunei bakarrik.
**c)** Funtzionarioei eta, dagokion neurrian, unibertsitate publikoetako zerbitzupean dauden langile lan-kontratudunei.
**d)** Unibertsitate pribatuetako langile guztiei eta unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.

35. **Honela sailkatzen dira langile publikoak….**

**a)** Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan) eta behin-behineko langileak.
**b)** Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
**c)** Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak.
**d)** Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finko nahiz aldi batekoak.

36. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunak dira....**

**a)** Legezko izendapen baten ondorioz Administrazio Zuzenbideak arautako estatutu-harreman baten bidez administrazio publiko bati lotuta daudenak, izaera iraunkorreko zerbitzu profesional ordainduak emateko.

**b)** Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeko edozein modalitate erabilita, eta idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.

**c)** Berariaz justifikatutako larrialdi- eta premia-arrazoiak direla-eta halakotzat izendatua dena berez karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko.

**d)** Izendapen baten bidez eta iraupen ez-iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.

37. **39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira hauek...**

**a)** Estatuaren Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoen administrazioak.

**b)** Estatuaren Administrazio Orokorra, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.

**c)** Autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.

**d)** Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.

38. **Nork onartzen du behin betiko UPV/EHU-ren aurrekontua?**

**a)** Errektorea.

**b)** Dekanoak.

**c)** Gobernu Kontseiluak.

**d)** Gizarte Kontseiluak.

39. **Hauek dira UPV/EHU-ko segurtasun- eta osasun-batzordeak:**

**a)** Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat.

**b)** Campus arteko Batzorde bat, Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat eta Laneko Ikuskaritza.

**c)** Campus arteko Batzorde bat eta laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko.

**d)** Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Laneko Ikuskaritza.

40. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, lanalditik kanpo euskarazko ikastaroetan parte hartzen duten langileek baimen ordaindua eskuratzeko eskubidea izango dute:**

**a)** Zeina ezin izango baita izan urtean 5 egun baliodun baino gehiagokoa.
**b)** Urtean bost egun baliodunekoa.
**c)** Ikastaroaren ordu guztien baliokide den egun kopurukoa.
**d)** Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu bada bakarrik ematen da baimena.

41. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**

**a)** Administrari laguntzailea.
**b)** Bibliotekako laguntzailea.
**c)** Bibliotekako teknikari laguntzailea.
**d)** Hezkuntza-laguntzako teknikari espezialista.

42. **Zer talde profesionaletan sailkatzen dira UPV/EHU-ko AZP-ko Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren eraginpeko langileak?**

**a)** Ez dago talde profesionalen araberako sailkapenik.
**b)** I. taldea, II. taldea eta III. taldea.
**c)** I. taldea, II. taldea, III. taldea eta IV. taldea.
**d)** I. taldea, II. taldea, V. taldea, VI. taldea eta VII. taldea.

43. **Zein dira UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako langileak?**

**a)** Langile funtzionarioak, lan-kontratudun langileak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
**b)** Langile funtzionarioak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
**c)** Langile lan-kontratudunak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
**d)** Langile funtzionarioak bakarrik.

44. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, honela egituratzen dira unibertsitateko ikasketa ofizialak:**

**a)** Hiru ziklotan: gradua, masterra eta doktoregoa.
**b)** Bi ziklotan: gradua eta masterra.
**c)** Hiru ziklotan: gradua, masterra eta lanbide-heziketa.
**d)** Bi ziklotan: gradua eta doktoregoa.

45. **Nola du izena UPV/EHU-ko arartekoak?**

**a)** Ararteko.
**b)** Herriaren defendatzaile.
**c)** Aldezle.
**d)** Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

46. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, UPV/EHU unibertsitatea...**

**a)** Campus anitzekoa da.
**b)** Pluricampus motakoa da.
**c)** Campus bakarrekoa da.
**d)** Bi campusekoa da.

47. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, zein dira ikastegiak?**

**a)** Eskola eta fakultateak.
**b)** Unibertsitateko campusak.
**c)** Ikastetxe nagusiak.
**d)** Ikasgelategiak.

48. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, dekanoaren agintaldia...**

**a)** 2 urtekoa izango da.
**b)** 3 urtekoa izango da.
**c)** 4 urtekoa izango da.
**d)** 5 urtekoa izango da.

49. **Zer organori dagokio UPV/EHU-ko Plan Estrategikoa eta Hizkuntza-Normalkuntzarako Plana onartzea?**

**a)** Klaustroari.
**b)** Gobernu Kontseiluari.
**c)** Errektorego-taldeari.
**d)** Errektoreari.

50. **Nork du ikastegi bateko arautegia onartzeko eskumena?**

**a)** Ikastegiko Batzarrak.
**b)** Zuzendaritza Kontseiluak.
**c)** Campuseko Batzarrak.
**d)** Gobernu Kontseiluak.

51. **Nork izendatzen ditu dekanoak eta ikastegietako zuzendariak?**

**a)** Ikastegiko Batzarrak.
**b)** Errektoreak.
**c)** Campuseko errektoreordea.
**d)** Eusko Jaurlaritzak.

52. **Gizarte kontseilua...**

**a)** UPV/EHUri atxikitako organo bat da.
**b)** UPV/EHUren kide anitzeko organo bat da.
**c)** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako organo bat da.
**d)** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kide anitzeko organo bat da.

53. **Zer organok du eskumena unibertsitateko irakasleen irakaskuntzaren alorreko irizpide orokorrak esleitzeko UPV/EHU-n?**

**a)** Gobernu Kontseiluak.
**b)** Irakaskuntza Plangintzarako Batzordeak.
**c)** Dekanotzak edo ikastegiko zuzendaritzak.
**d)** Saileko Kontseiluak.

54. **Aldezlearen helburua hau izango da:**

**a)** Unibertsitatea ordezkatzea prozedura judizialetan.
**b)** Unibertsitateko jarduerarekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebaztea.
**c)** Gobernu Kontseiluak onartutako akordioak berrestea.
**d)** Unibertsitateko kideen arteko lotura izatea.

55. **Honi dagokio hasierako onespena ematea fakultate bat sortzeko proposamenei.**

**a)** Gobernu Kontseiluari.
**b)** Fakultateko Batzarrari.
**c)** Errektoreari.
**d)** Unibertsitate-gaietako sail eskudunari.

56. **UPV/EHU-ko gobernu-kontseiluaren kideak, besteak beste, hauek dira:**

**a)** Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko kideak.
**b)** Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bost kide.
**c)** Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko hiru kide.
**d)** Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bi kide.

57. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, nor arduratzen da UPV/EHU-ren administrazio- eta ekonomia-zerbitzuak antolatu eta kudeatzeaz?**

**a)** Errektorea.
**b)** Gerentea.
**c)** Campuseko errektoreordea.
**d)** Ondare eta Kontratazioetarako gerenteordea.

58. **Campuseko batzarrak kide hauek izango ditu, besteak beste.**

**a)** Gehienez sail-zuzendarien zortzi ordezkari.
**b)** Gehienez sail-zuzendarien sei ordezkari.
**c)** Gehienez sail-zuzendarien bost ordezkari.
**d)** Gehienez sail-zuzendarien lau ordezkari.

59. **UPV/EHU-ko Gizarte-kontseiluak:**

**a)** Araugintzarako ahalmena erabiliz, UPV/EHUko estatutuak garatu eta aplikatzeko arauak onartzen ditu.
**b)** Bere eginkizunak hobeto betetzeko komenigarritzat jotzen dituen batzordeak eratu ditzake.
**c)** Campus berriak sor ditzake.
**d)** Inbertsio eta azpiegituren urte anitzerako programazioa onartzen du.

60. **Zer arautzen du 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 35. artikuluak?**

**a)** Erabateko deuseztasuna.
**b)** Deuseztagarritasuna.
**c)** Arrazoitzea.
**d)** Administrazio-egintzen jakinarazpena.

61. **Espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, administrazio-prozedura bat ebazteko eskatzen diren txostenak:**

**a)** aukerakoak eta ez-lotesleak izango dira.
**b)** nahitaezkoak eta ez-lotesleak izango dira.
**c)** aukerakoak eta lotesleak izango dira.
**d)** nahitaezkoak eta lotesleak izango dira.

62. **Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein den zuzena:**

**a)** aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko epea hilabete izango da, gora jotzeko errekurtsoaren ebazpena jakinarazten denetik.
**b)** administrazio-bidea amaitzen duten ebazpen eta egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren edo hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean.
**c)** administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
**d)** gora jotzeko edo berraztertzeko errekurtsoaren ebazpenaren aurka, ezin izango da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri.

63. **UPV/EHU-ren aurrekontuaren ezaugarriak Euskal Unibertsitate-Sistemaren Legearen 104. artikuluan jasotzen dira, eta hauek dira:**

**a)** Publikoa, bakarra eta orekatua izango da, eta bere diru-sarrera eta gastu guzti-guztiak agertu beharko dira bertan.
**b)** Publikoa eta orekatua eta solidarioa izango da.
**c)** Nahikoa, zabala eta malgua izango da, eta kontabilitate-mugimendu guztiak agertu beharko dira bertan.
**d)** Barnekoa, anizkoitza eta orekatua izango da.

64. **Egiteko nagusia ofizio batean jardutea duten lanpostuak, zeinetan batez ere eskuzko teknikak erabili behar baitira eta zeinetan aritzeko ez baita ezinbestekoa ikasketa-titulaziojakin bat izatea:**

**a)** Langile lan-kontratudun finkoentzat gordeko dira.
**b)** Langile lan-kontratudun finkoentzat gorde ahalko dira.
**c)** Langile funtzionarioentzat gordeko dira.
**d)** EAEko administrazio publikoetan ez dago halako lanposturik.

65. **UPV/EHU-rekiko zerbitzu-harremana hartzeko, nola hautau behar dira funtzionarioak eta langileak?**

**a)** Enplegu-zerbitzu publikoen bidez.
**b)** Behin-behineko langile lan-kontratudunen edo langile mugagabe ez-finkoen artetik.
**c)** Langileen arloan eskumena duen organoak erakundearen interesetarako egokien deritzon moduan.
**d)** Bizkortasunez, objektibotasunari kalterik egin gabe.

66. **Hitzarmen Kolektiboaren arabera, UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileek zenbat aparteko ordu egin ditzakete gehienez urteko?**

**a)** 80.
**b)** 85.
**c)** 100.
**d)** Gutxieneko kopuru bat dago, baina gehienekorik ez.

67. **Ezkontza edo odol bidezko ahaidetasunaren 2. mailara artekoen gaixotasun larri egiaztatuagatik, zer iraupen izango du baimenak?**

**a)** Hiru lanegun.
**b)** Bi egun natural.
**c)** Bi lanegun.
**d)** Hiru egun natural.

68. **Zer kontratu motarekin lotzen da langile baten erretiro partziala?**

**a)** Praktikaldiko kontratuarekin.
**b)** Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin.
**c)** Txanda-kontratuarekin.
**d)** Prestakuntzarako kontratuarekin.

69. **Erretiro partziala hartzen duten langileek zer izenpetzen dute?**

**a)** Lan edo zerbitzu jakin baterako lanaldi partzialeko lan-kontratua.
**b)** Erretiro partzialeko lan-kontratua.
**c)** Lanaldi partzialeko txanda-kontratua.
**d)** Lanaldi partzialeko lan-kontratua.

70. **UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langileek borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea dute?**

**a)** Gutxienez urtebeteko antzinatasuna badute enpresan.
**b)** Ez dute halako eskubiderik; funtzionarioek bakarrik dute.
**c)** Gutxienez bi urteko antzinatasuna badute enpresan.
**d)** Gutxienez bi hirurteko aitortu badituzte.

71. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**

**a)** Administrari laguntzailea.
**b)** Bibliotekako laguntzailea.
**c)** Bibliotekako teknikari laguntzailea.
**d)** Laborategiko teknikari espezialista.

72. **AZP-aren euskalduntze-batzordearen osaerari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**

**a)** Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kideak hauek izango dira: hamar irakasle edo ikertzaile, hiru ikasle, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat eta sindikatu bakoitzeko bi ordezkari.
**b)** Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kide izango dira campusetako euskara-batzordeetako eta ikastegietako euskara-batzordeetako ordezkari bana, halakorik badago.
**c)** Batzordea osatuko dute AZPko langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzaren ordezkari bik eta Administrazioaren beste horrenbeste ordezkarik. Horrez gain, sindikatu bakoitzak gehienez aholkulari bat eraman ahal izango du batzordearen bileretara.
**d)** Gobernu Kontseiluak arautuko ditu batzordeko kideak izendatzeko prozedura eta funtzionamendua.

73. **Zer da administrazio eta zerbitzuetako langileen erreferentziako plantila?**

**a)** Giza baliabideak kudeatzeko tresna bat da.
**b)** Giza baliabideen plangintza egiteko tresna bat da.
**c)** Giza baliabideak kontrolatzeko tresna bat da.
**d)** Lanpostuak baloratzeko tresna bat da.

74. **Langileen Estatutua honela onartu zen:**

**a)** Legegintzako Errege-dekretu bidez.
**b)** Lege arrunt bidez.
**c)** Lege-dekretu bidez.
**d)** Xedapen iragankor bidez.

75. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak:**

**a)** Bitarteko funtzionarioaren figura ezabatzen du.
**b)** Bitarteko funtzionarioaren figura jasotzen du.
**c)** Bitarteko funtzionarioen figura mantentzen du estatutu hori indarrean sartu aurretiko kontratuetarako bakarrik.
**d)** Adierazten du bitarteko funtzionarioak karrerako funtzionario izatera pasatuko direla hirugarren xedapen gehigarrian jasotako prozedura berezi baten bidez.

76. **Behin-behineko langileei dagokienez:**

**a)** Izendatzea nahiz kargutik kentzea librea izango da.
**b)** Izaera ez-iraunkorreko langileak dira.
**c)** Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzte.
**d)** Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

77. **Hirurtekoak:**

**a)** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan oinarrizko ordainsaritzat hartzen dira.
**b)** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ordainsari osagarritzat hartzen dira.
**c)** Bitarteko funtzionarioek ezin dituzte kobratu.
**d)** Ez dira ordainsaritzat hartzen.

78. **Desgaitasuna duten pertsonak:**

**a)** Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko hiruko kupoa gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonek bete ditzaten.
**b)** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ez du kontuan hartzen inolako neurririk desgaitasuna duten pertsonak funtzioan publikoan sartzeari dagokionez.
**c)** Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen kupo bat gorde ahal izango da, desgaitasunen bat duten pertsonek bete ditzaten. Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du kopuru hori, zeina ezingo baita izan eskaintzen diren lanpostuen % 3 baino txikiagoa eta % 10 baino handiagoa.
**d)** Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonek bete ditzaten.

79. **B taldeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko, hau eskatuko da:**

**a)** Graduko tituluaren jabe izatea.
**b)** Goi-mailako teknikariaren tituluaren jabe izatea.
**c)** B1 talderako, graduko tituluaren jabe izan beharko da. B2 talderako ez da halakorik behar.
**d)** Batxilergoko tituluaren edo teknikari-tituluaren jabe izatea.

80. **Zein dira karrerako funtzionarioak hautatzeko sistemak?**

**a)** Oposizioa.
**b)** Lehiaketa.
**c)** Oposizioa eta oposizio-lehiaketa.
**d)** Lehiaketa-sistema bakarrik erabili ahal izango da baldin eta Administrazio Publikorako Estatuaren Goi Ikuskaritzak onartzen badu.

81. **Karrerako funtzionarioak hautatzeko prozesuetan, noiz erabili ahal izango da lehiaketa-sistema bakarrik?**

**a)** Inoiz ez.
**b)** Legearen indarrez bakarrik, eta salbuespen modura.
**c)** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:
**d)** Administrazio publiko bakoitzeko organo arduradun nagusiak onartzen badu.

82. **Nolanahi ere, enplegu publikoaren eskaintza betetzeko, epe hau izango da gehienez ere:**

**a)** Hiru urte.
**b)** Lau urte.
**c)** Hamar urte.
**d)** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten.

83. **Langileen Estatutuaren arabera, hauetako zein ez da langileen oinarrizko eskubideetako bat?**

**a)** Greba-eskubidea.
**b)** Sindikatua askatasunez aukeratzeko eskubidea.
**c)** Lanbide-heziketa jarraitua izateko eskubidea.
**d)** Enpresan informazioa jasotzeko, hitz egiteko eta parte hartzeko eskubidea.

84. **Beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egin ditzakete:**

**a)** Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago edukita independente bizi direnek, baldin eta gurasoen edo tutoreen onespena, edo bere kargura daukan pertsonaren edo erakundearen baimena badute.
**b)** Hamasei urtetik gorakoek.
**c)** Hemezortzi urtetik beherakoek ez dute lege-gaitasunik beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egiteko.
**d)** Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago dituztenek, betiere lanaldia ez bada zazpi ordutik gorakoa.

85. **Lan-kontratua.**

**a)** Idatziz egin behar da beti.
**b)** Berbaz egindako kontratuak zuzenbidean erabat deusezak dira.
**c)** Lanbideren F3 ereduaren arabera egin behar da.
**d)** Praktikaldiko kontratuak idatziz jaso behar dira kasu guztietan.

86. **Praktikaldiko kontratuaren iraupena:**

**a)** Ezingo da izan urtebete baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria bera izanda.
**b)** Ezingo da izan bi urte baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua bera izanda.
**c)** Langilearen eta alderdi kontratatzailearen arteko akordio bidez zehaztuko da.
**d)** Ez dago araututa Langileen Estatutuan.

87. **Benetan lan egindako ordu kopurua:**

**a)** Inoiz ezingo da izan egunean bederatzi ordu baino gehiago.
**b)** Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan bederatzi baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
**c)** Inoiz ezingo da izan egunean hamar ordu baino gehiago.
**d)** Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan hamar baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.

88. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, lanpostu-zerrendek nahitaez jaso beharreko informazioaren artetik, erantzun hauetako bat okerra da:**

**a)** Dedikazio-erregimena.
**b)** Hizkuntza-eskakizuna.
**c)** Hizkuntza-eskakizunak indarra galtzen duen eguna.
**d)** Lanpostua elebiduna ala elebakarra den.

89. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, lehiaketa-oposizio bidezko aukeraketa-prozedura batean, lehiaketa-aldiaren balorazioa:**

**a)** Beti % 45 izango da.
**b)** Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 45etik gorakoa.
**c)** Prozesua deitzen duen administrazio publikoak erabakitzen du.
**d)** Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 50etik gorakoa.

90. **Erantzun hauetatik zein ez da baliozkoa funtzionario bat zerbitzu berezietakotzat jotzeko?**

**a)** Nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeetako funtzionario-izaera hartzen duenean.
**b)** Administrazioaren baimena duenean EAEko GKEen Erregistroan jaso eta aintzatetsitako gobernuz kanpoko erakundeetako batean sei hilabetetik gorako denboraldian nazioarteko edo nazioz gaindiko eginkizunak betetzeko.
**c)** Foru-diputazioetan eta toki-korporazioetan hautatutako kargua izan, eta kargu hori ordaindua eta dedikazio osokoa denean.
**d)** Gorte Nagusiek aukeratzen dutenean Konstituzio-erakundeetako edo ganberek hautatu beharreko organoetako kide izateko.

91. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, kontzeptu hauetatik zein ez da lansari osagarri bat?**

**a)** Lanpostu-mailako osagarria.
**b)** Produktibitate-osagarria.
**c)** Berariazko osagarria.
**d)** Ordainsari bereziak.

92. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko arauak ez betetzea?**

**a)** Falta oso larria.
**b)** Falta oso arina.
**c)** Falta larria.
**d)** Falta arina.

93. **Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu batera sartzeko:**

**a)** Hautatutako hautagaiak urtebeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
**b)** Hautatutako hautagaiak sei hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
**c)** Eskakizuna bete beharrekoa izango da lanpostura sartzeko.
**d)** Hautatutako hautagaiak hiru hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.

94. **Zer unibertsitatek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema?**

**a)** Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate publikoek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
**b)** Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
**c)** Euskal Unibertsitate Sistema hauek osatzen dute: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Makina Erremintaren Institutua eta Zamudioko Unibertsitate Ikerketako Zentroa.
**d)** Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek eta egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izanik atxikitze-eskaera onartzen zaien unibertsitateek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera.

95. **UPV/EHUko ikasketa-planak egitea:**

**a)** Unibertsitate bakoitzeko klaustroaren egitekoa da.
**b)** Unibertsitate publikoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena ez da beharrezkoa izango.
**c)** Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.
**d)** Behin betiko onartzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren oniritzia behar da.

96. **Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzea:**

**a)** Eusko Legebiltzarrari dagokio, unibertsitatearen jardun-eremua EAEko hiru lurralde historikoak badira.
**b)** Unibertsitatearen jardun-eremua lurralde historiko bakar bat baldin bada, lurralde horretako Batzar Nagusiei dagokie.
**c)** Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio.
**d)** Unibertsitate-hezkuntzako gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio.

97. **Unibertsitate-planak:**

**a)** Lau urteko iraupena du.
**b)** Bost urteko plan bat da.
**c)** Hiru urteko plan bat da.
**d)** Hezkuntza Sailak ezartzen du haren iraupena.

98. **Erakunde hauetatik zein ez dago jasota Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean?**

**a)** Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
**b)** Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
**c)** Gizarte Kontseilua.
**d)** EAEko Errektoreen Batzarra.

99. **Unibertsitate publikoaren aurrekontuetan, programa-kontratuak:**

**a)** Unibertsitateak ez du lege-baimenik programa-kontratuak sinatzeko; unibertsitate publikoek bakarrik.
**b)** Oinarrizko ekarpen bat dira.
**c)** Ekarpen subsidiario bat dira.
**d)** Baldintzapeko finantzaketa-era bat dira.

100. **Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate ez-publiko batek fakultate berri bat sortu nahi badu:**

**a)** Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren baimena behar du.
**b)** Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren baimena behar du.
**c)** Eusko Legebiltzarraren baimena behar du.
**d)** Fakultate berria kokatuko den lurralde historikoko Batzar Nagusien baimena behar du.

101. **UPV/EHU.**

**a)** Foru-zuzenbideko erakunde bat da.
**b)** Zuzenbide publiko erkideko erakunde bat da.
**c)** Zuzenbide publikoko erakunde bat da.
**d)** Zuzenbide pribatuko eta finantzaketa publikoko erakunde bat da.

102. **Hauetako zein ez da UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Ordezkaritza-organo bat?**

**a)** Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
**b)** Enpresa Batzordea.
**c)** Ikastegietako batzarrak.
**d)** Atal sindikalak.

103. **Nork aukeratuko du aldezlea?**

**a)** Gobernu Kontseiluak gehiengo osoz, 5 urterako.
**b)** Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen gehiengo osoz, 5 urterako.
**c)** Klaustroak, errektoreak proposatuta, 5 urterako.
**d)** Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen bi herenen gehiengoarekin, 5 urterako.

104. **Euskal unibertsitate-sistemaren unibertsitate-ikastegiak sortu, aldatu edo kentzea:**

**a)** Unibertsitateko Klaustroari dagokio, Gobernu Kontseiluak proposatuta.
**b)** Gobernu Kontseiluari dagokio.
**c)** Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
**d)** Gobernu Kontseiluari eta ikastegia dagoen edo egongo den Campuseko Batzarrari dagokie.

105. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio komunek zuzeneko ekintzak abiaraz baditzakete ere, honi dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea:**

**a)** Estatuaren Administrazio Orokorrari.
**b)** Autonomia-erkidegoko instituzioei.
**c)** Lurralde historikoetako tokiko organoei eta foru-administrazioari.
**d)** Lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari.

106. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, berdintasunaren arloko zer neurri diseinatu eta egikaritzea dagokie instituzio komunei?**

**a)** Diskriminazio positiborik gabekoak.
**b)** Ekintza positibokoak.
**c)** Ekintza publikokoak.
**d)** Diskriminazio positibokoak.

107. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko administrazioari dagokio emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki hauetan era bateratuan egin beharrekoak direnean:**

**a)** Lurralde historiko guztietan.
**b)** Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eta Euskal Herriaren lurralde osoan.
**c)** Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan.
**d)** EAEko udalerri guztietan.

108. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko administrazioari dagokio, halaber:**

**a)** Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko informazio-jarduerak egitea.
**b)** Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
**c)** Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko orientazio-jarduerak egitea.
**d)** Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko koordinazio-jarduerak egitea.

109. **2005eko otsailaren 18ko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ondoreetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da sexu biek gutxienez ordezkaritza hau dutenean:**

**a)** % 50eko ordezkaritza dutenean.
**b)** % 40tik gorako ordezkaritza dutenean.
**c)** % 45eko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.
**d)** % 40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.

110. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmen Kolektiboa hauei aplikatuko zaie:**

**a)** UPV/EHUrekin lotura juridiko eta laboral mugagabea edo aldi baterakoa duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
**b)** UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei.
**c)** UPV/EHUren zerbitzupeko funtzionarioei.
**d)** Lotura juridiko eta laboral mugagabea bakarrik duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.

111. **Langile lan-kontratudunen lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak:**

**a)** UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Batzorde Parekidearekin negoziatu ondoren.
**b)** UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
**c)** UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
**d)** UPV/EHUko Klaustroak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.

112. **Promozio profesionalean parte hartu ahalko dute:**

**a)** UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek.
**b)** UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek, betiere beren lanpostuan gutxienez bi urteko antzinatasuna badute.
**c)** UPV/ EHUrekin lan-lotura duten langileek.
**d)** Gutxienez 5 urteko antzinatasuna duten langile guztiek.

113. **Lanpostuen zerrendetan, hauek jaso behar dira:**

**a)** Aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak.
**b)** Aurrekontuetan diruz hornituta egon eta langile funtzionarioentzat gordeta daudenak bakarrik.
**c)** Langile funtzionario eta langile lan-kontratudunentzakoak bakarrik, hutsik daudenak izan ezik.
**d)** Lanpostu guztiak, aurrekontuetan diruz hornituta egon nahiz ez.

114. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, norberaren kontuetarako baimena:**

**a)** Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu.
**b)** Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen aldez aurretiko baimena beharko da.
**c)** Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu.
**d)** Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen aldez aurretiko baimena beharko da.

115. **Nahitaezko eszedentzian dagoen langileari dagokionez:**

**a)** Lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, baina eszedentzia aldia ez zaio kontuan hartuko antzinatasunerako.
**b)** Antzinatasuna kontuan hartuko zaio, baina ez du eskubiderik izango lanpostua gordea izateko.
**c)** Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, eta eszedentzia-aldia kontuan hartuko zaio antzinatasunerako.
**d)** Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du baldin eta eszedentzia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta antzinatasunerako zenbatzeko eskubidea izango du.

116. **UPV/EHU-ko gizarte funtsa erabili ahalko dute:**

**a)** UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.
**b)** Langile funtzionarioek bakarrik.
**c)** Langile lan-kontratudunek bakarrik.
**d)** UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek.

117. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako prestakuntza batzordea hauek osatuta egongo da:**

**a)** Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkarik eta administrazioko beste horrenbeste ordezkarik.
**b)** Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta administrazioko beste horrenbeste ordezkarik.
**c)** Gehiengoa duen sindikatuko bi ordezkarik, Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten gainerako sindikatuetako ordezkari batek eta Administrazioko beste horrenbeste ordezkarik.
**d)** Batzorde Parekideak dituen ordezkari berek.

118. **Prebentzioko ordezkariek:**

**a)** Larrialdi-planak diseinatzeko ardura dute.
**b)** Prebentzio-jarduerak planifikatuko dituzte urtero prebentzioko teknikariekin batera.
**c)** Unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.
**d)** Larrialdi-planak kudeatzeko ardura izango dute.

119. **Nori dagokio UPV/EHU-ko Erregistro Orokorra mantentzea?**

**a)** Idazkari nagusiari.
**b)** Errektoreari.
**c)** Dagokien zerbitzuburuei.
**d)** Campuseko errektoreordetzei.

120. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz, zer organori dagokio beste organo batzuei espresuki esleituak ez dauden eskumenak egikaritzea?**

**a)** Gobernu Kontseiluari.
**b)** Klaustroari.
**c)** Errektoreari.
**d)** Idazkari nagusiari.

# ATAL ESPEZIFIKOA

1. **Zer irekiera-angelu du guraize-eskailera batek?**

   **a)** 25º.
   **b)** 35º.
   **c)** 30º.
   **d)** 90º.

2. **Noiz egiten da pinu-beldarraren (*thaumetopoea pityocampa*) kontrako borroka biologikoa?**

   **a)** Urrian - azaroan.
   **b)** Abuztuan - irailean.
   **c)** Azaroan - abenduan.
   **d)** Abenduan - urtarrilean.

3. **Zer da oidioa?**

   **a)** Onddo bat.
   **b)** Bakterio bat.
   **c)** Birus bat.
   **d)** Nematodo bat.

4. **Nola desinfektatuko ditugu kimaketako erremintak?**

   **a)** % 70ean desnaturalizatutako alkoholarekin.
   **b)** Garbigailurako zuritzailearekin.
   **c)** % 70eko karbonato likidoarekin.
   **d)** Gasolinarekin.

5. **Zer elementu nagusi ageri dira ongarri guztietan?**

   **a)** Nitrogenoa, karbonoa, potasioa.
   **b)** Fosforoa, manganesoa, potasioa.
   **c)** Fosforoa, potasioa, nitrogenoa.
   **d)** Karbonoa, potasioa, fosforoa.

6. **Zer hartuko dugu kontuan ureztatze mota aukeratzeko?**

   **a)** Klimatologia.
   **b)** Lurra.
   **c)** Landaketa.
   **d)** Ezaugarri geografikoak.

7. **Zertan datza zuhaitz baten adaburuen bakanketa?**

   **a)** Adaburuaren bolumena nabarmen murriztean (% 20).
   **b)** Adaburuko zenbait adar isolatu ebakitzean.
   **c)** Adaburuaren luzeraren bi heren ebakitzean.
   **d)** Adarrak zeharo moztean, harik eta adarrak ia-ia enborraren parean utzi arte.

8. **Zertar arduratzen da fitopatologia?**

**a)** Klima eta lurzoruaren emankortasuna aztertzeaz.
**b)** Landareen sustraiak aztertzeaz.
**c)** Landareen gaitzak aztertzeaz.
**d)** Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

9. **Zertarako erabil litezke kimaketako hondarrak?**

**a)** Azpiak egiteko.
**b)** Konposta egiteko.
**c)** Galdaretan erretzeko, eraikinen berogailu-sistemetan.
**d)** Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

10. **Zer egin inurriek limoiondo batean gora eginez gero?**

**a)** Limoiondoa ebaki.
**b)** Limoiondoa fumigatu, inurri bila ibiltzen diren landare-zorriak ez agertzeko.
**c)** Limoiondoa karez margotu.
**d)** Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

11. **Nola desinfektatuko ditugu kimaketako erremintak?**

**a)** Etxea garbitzeko alkoholarekin.
**b)** Etxeko zuritzaile likidoarekin, uretan 1/9 proportzioan disolbatuta.
**c)** % 70eko karbonato likidoarekin.
**d)** Gasolinarekin.

12. **Landareak bi modutara elikatzen dira.**

**a)** Batetik, sustraietatik eta, bestetik, loreetatik.
**b)** Batetik, sustraietatik eta, bestetik, petaloetatik.
**c)** Batetik, sustraietatik eta, bestetik, hostoetatik.
**d)** Batetik, hostoetatik eta, bestetik, loreetatik.

13. **Zerk eragiten du klorofilaren sorreran?**

**a)** Ilargiak.
**b)** Haizeak.
**c)** Argiak.
**d)** Soinuak.

14. **Nondik transpiratzen dute hostoek?**

**a)** Estometatik.
**b)** Estomagotik.
**c)** Sustraitik.
**d)** Petalotik.

15. **Sustraien egitekoa landareari lurrean eustea eta nutrienteak xurgatzea da. Nola deitzen zaio nutrienteak xurgatzeko prozesuari?**

**a)** Esklerosia.
**b)** Osmosia.
**c)** Tronbosia.
**d)** Klorosia.

16. **Zein da zurtoinen egitekoa?**

**a)** Landarea lurrean finkatzea eta izerdia eroatea.
**b)** Hostoei eta loreei eustea baino ez.
**c)** Izerdia eroatea baino ez.
**d)** Hostoei eta loreei eustea eta izerdia eroatea.

17. **Hostoak zurtoinetik jaiotzen dira, eta bi alde izaten dituzte.**

**a)** Gainaldea eta azpialdea.
**b)** Lehena eta geroa.
**c)** Gaua eta eguna.
**d)** Ezkerra eta eskuina.

18. **Hostoaren zer aurpegik xurgatzen du argia?**

**a)** Atzeko aldeak.
**b)** Eskuineko aldeak.
**c)** Gainaldeak.
**d)** Azpialdeak.

19. **Zein da landareen ugal-aparatua?**

**a)** Hostoak.
**b)** Zurtoinak.
**c)** Sustraiak.
**d)** Loreak.

20. **Lorezaintzan «xehatu» erabiltzean, zer esan nahi dugu?**

**a)** Lurra irekitzea, bertan ura sartzeko.
**b)** Zulatzeko lanabes bat.
**c)** Ureztatzeko lanabes bat.
**d)** Zokorrak txikitzea.

21. **Zer da eskokatzea?**

**a)** Landare herrestariak, sasiak eta garoak kentzea.
**b)** Landare herrestariak, sasiak eta garoak ureztatzea.
**c)** Landare herrestariak, sasiak eta garoak ongarritzea.
**d)** Landare herrestariak, sasiak eta garoak erretzea.

22. **Zuhaitzak landareak dira, zurezko zurtoina dute eta adarrak ematen dituzte garaiera jakin batetik gora. Landare bat zuhaitz apaingarritzat hartzeko, zer garaiera gainditu behar du?**

**a)** 6 metro, gaztaroan.
**b)** 6 metro, helduaroan.
**c)** 2 metro, gaztaroan.
**d)** 2 metro, helduaroan.

23. **Hosto iraunkorreko zuhaitzek.**

**a)** Berdetasuna ematen dute urte osoan.
**b)** Berdetasuna ematen dute udaberrian eta udazkenean.
**c)** Berdetasuna ematen dute udazkenean eta neguan.
**d)** Berdetasuna ematen dute urteko azken 6 hilabeteetan.

24. **Noiz landatzen dira hosto iraunkorreko zein hosto erorkorreko zuhaixkak?**

**a)** Udazken-hasieran edo udaberri-hasieran.
**b)** Uda-hasieran edo negu-hasieran.
**c)** Udazken-hasieran edo negu-hasieran.
**d)** Uda-hasieran edo udaberri-hasieran.

25. **Zuhaixka apaingarrien ezaugarriekin lotuta, honako esaldi hauetatik zein da okerra?**

**a)** Hosto erorkorra edo iraunkorra izan dezakete.
**b)** 3 eta 6 metro arteko garaiera izan ohi dute.
**c)** Oinarritik bertatik adarkatzen dira.
**d)** Enbor edo ardatz bakarretik goratzen dira.

26. **Nola deitzen dira beren buruari zutik eusten ez dioten landareak, altxatzeko euskarri bat behar dutenak?**

**a)** Landare igokaria.
**b)** Landare ureztatzailea.
**c)** Aireko landarea.
**d)** Lurpeko landarea.

27. **Zer hosto mota eduki ohi dute konifero gehienek?**

**a)** Erorkorra.
**b)** Iraunkorra.
**c)** Hegazkorra.
**d)** Egonkorra.

28. **Noiz landatu behar dira heskaiak sustrai hutsean?**

**a)** Udaberri-hasieran.
**b)** Uda-hasieran.
**c)** Heskaiak sustrai-lurra izanez gero, ia urte osoan landatu daiteke.
**d)** Ia urte osoan landatu daiteke.

29. **Noiz inausi behar dira heskaiak?**

**a)** Hotza baretzen hasten denean, urtarrilaren amaieran eedo otsailaren hasieran (negua).
**b)** Bero handia egiten duenean, uztailaren amaieran edo abuztuaren hasieran (uda).
**c)** Urte osoan.
**d)** Negu bete-betean.

30. **Inausketaren ondorioz zauri handiak ageri badira edota garai okerrean inausiz gero, baliteke onddoekin lotutako arazoak agertzea. Zauriak handiak izanez gero, zer pasta aplikatuko da?**

**a)** Intsektizida, estaltzeko.
**b)** Fungizida, estaltzeko.
**c)** Isolatzailea, estaltzeko.
**d)** Bakterioen kontrakoa, estaltzeko.

31. **Landare bat birosi izeneko gaitzak jota baldin badago.**

**a)** Bakterioek eraso egin dioten seinale.
**b)** Onddoek eraso egin dioten seinale.
**c)** Birusek eraso egin dioten seinale.
**d)** Intsektuek eraso egin dioten seinale.

32. **Mintegian hasten da, eta behealdean dituen adarrak esekitzen ematen zaio jarraipena, adaburuak 2 metro izan ditzan oinezkoen eremuetan. Adierazi zer inausketa motaz ari garen.**

**a)** Osasun-inausketak.
**b)** Formazio-inausketak.
**c)** Loraketa eta fruktifikazioa sustatzeko inausketak.
**d)** Ezohiko inausketak.

33. **Landarearentzat kaltegarri suerta litekeen hildako landare-materia oro erauzteko lana da. Hor barruan sartzen dira bakanketa edota gehiegizko adarrak inaustea, airea eta eguzkia sartzen laguntzeko, baita adaburua murriztea ere. Adierazi zer inausketari buruz ari garen.**

**a)** Ezohiko inausketak.
**b)** Osasun-inausketak.
**c)** Loraketa eta fruktifikazioa sustatzeko inausketak.
**d)** Formazio-inausketak.

34. **Ernamuinak aukeratuta egiten da, eta adar zupatzaileak eta mentuak eramateko kimuak erretiratuta, loreen edo fruituen neurria edo kopurua handitzearren. Adierazi zer inausketa motari buruz ari garen.**

**a)** Formazio-inausketak.
**b)** Osasun-inausketak.
**c)** Ezohiko inausketak.
**d)** Loraketa eta fruktifikazioa sustatzeko inausketak.

35. **Izurriteen erasoa, gaixotasunak, gehiegizko haztea eta abar gertatzen denean jotzen da haietara. Inausketa horren ondoren, zuhaitzaren jarraipena egin behar da, zauri handiak uzten baitira. Adierazi zer inausketa motari buruz ari garen.**

**a)** Inausketa topiarioa.
**b)** Ezohiko inausketak.
**c)** Osasun-inausketak.
**d)** Formazio-inausketak.

36. **Inausketa topiarioa ohikoa izaten da.**

**a)** 6 metrotik gorako luzera duten koniferoetan bakarrik.
**b)** Zuhaixketan bakarrik.
**c)** Heskaietan eta koniferoetan.
**d)** Zuhaixketan eta heskaietan.

37. **Honako inausketa mota hauetatik, zein da landareari itxura estrukturala ematen dion inausketa artistikoa?**

**a)** Loraketa eta fruktifikazioa sustatzeko inausketa.
**b)** Inausketa topiarioa.
**c)** Ezohiko inausketak.
**d)** Formazio-inausketak.

38. **Lorezaintzan, zer da adargabetzea?**

**a)** Alboko loreak kentzea, adaburuaren zabalera murrizteko.
**b)** Zuhaitzaren gaina kentzea.
**c)** Adabegien arteko alboko adarrak kentzea, adaburuaren zabalera murrizteko.
**d)** Zuhaitzaren enborra kentzea.

39. **Lorezaintzan, zer da lepatzea?**

**a)** Alboko loreak kentzea, adaburuaren zabalera murrizteko.
**b)** Zuhaitzaren gaina kentzea.
**c)** Adabegien arteko alboko adarrak kentzea, adaburuaren zabalera murrizteko.
**d)** Zuhaitzaren enborra kentzea.

40. **Inausketari dagokionez, ebakia enborraren azaleko zimurraren kanpoaldetik egin behar da, enborrarekiko apur bat inklinatua dela. Zer izen du ebaki mota horrek?**

**a)** Eskuairan ebakitzea.
**b)** Alakan ebakitzea.
**c)** Angelu zuzenean ebakitzea.
**d)** Sasieskuairan ebakitzea.

41. **Zer sortzen da ondo egindako inausketa-ebakietan?**

**a)** Ehun zikatrizialezko triangelu zentrokideak.
**b)** Ehun zikatrizialezko hexagono zentrokideak.
**c)** Ehun zikatrizialezko karratu zentrokideak.
**d)** Ehun zikatrizialezko eraztun zentrokideak.

42. **Zer makina erabiliko zenuke soropila ebakitzeko?**

**a)** Sega-makina.
**b)** Guraizeak.
**c)** Eskuarea.
**d)** Aitzurra.

43. **Tratamendu-ekipamenduak.**

**a)** Lorategian erabiltzen dira, dela soropila ebakitzeko, dela heskaiak inausteko.
**b)** Lorategian erabiltzen dira, dela herbizidak aplikatzeko, dela gaitzen edo izurriteen kontrako tratamenduetarako.
**c)** Lorategian erabiltzen dira, dela soropila ebakitzeko, dela herbizidak aplikatzeko, dela gaitzen edo izurriteen kontrako tratamenduetarako.
**d)** Lorategian erabiltzen dira, dela heskaiak inausteko, dela herbizidak aplikatzeko, dela gaitzen edo izurriteen kontrako tratamenduetarako.

44. **Hauetako bat ez da tratamendu-ekipamendua.**

**a)** Ureztagailua.
**b)** Lainoztagailu eramangarria.
**c)** Arrabol-lainoztagailua.
**d)** Aitzurra.

45. **Ureztatzeko ekipamenduak. Zer beste izen hartzen dute plastikozko hodi zulatuek?**

**a)** Ahurtarakak.
**b)** Eskarifikadoreak.
**c)** Txorrotak.
**d)** Tantakakoak.

46. **Non ipiniko dira ureztagailuak?**

**a)** Soropilaren gainazalaren azpitik.
**b)** Soropilaren gainazalaren gainetik.
**c)** Soropilaren gainazalean, plataforma batzuetatik zintzilik.
**d)** Ez dute behar instalaziorik.

47. **Honako erreminta hauetatik, bat aitzurtzeko erabiltzen da.**

**a)** Jorraia.
**b)** Inauskaia.
**c)** Kakoa.
**d)** Landagailua.

48. **Zer da zotalarrotzea?**

**a)** Labore-lurra bigarren aldiz goldatzea.
**b)** Gaixorik dauden adarrak bigarren aldiz inaustea.
**c)** Gaitzak jotako landare bati bigarren tratamendua aplikatzea.
**d)** Labore-lurra bigarren aldiz hondeatzea.

49. **Marruskadura-inauskaiek aho kurbatuko orri bat eta kontraorri kurbatu bat izan ohi dituzte. Nola deitzen zaio azken horri?**

**a)** Jorraia.
**b)** Kakodun sardea.
**c)** Kakoa.
**d)** Azalatzeko aitzurra.

50. **Zer erreminta erabiliko zenuke 30 mm baino gehiagoko diametroko adarrak edo iristen zailak direnak inausteko?**

**a)** Inausteko guraizeak.
**b)** Txertatzeko labana.
**c)** Sasi-garbitzeko makina.
**d)** Inausteko zerrotea.

51. **Zer da intsektizida sistemiko bat?**

**a)** Intsektizida oso toxikoa.
**b)** Antidotorik gabeko intsektizida.
**c)** Larrialdi aurreko egoeran erabiltzen den intsektizida.
**d)** Landareak xurgatzen duen intsektizida.

52. **Zer hartu behar da kontuan produktu fitosanitarioak aplikatzean?**

**a)** Zenbat eta likido gehiago bota, orduan eta eraginkorragoa da.
**b)** Ontzian adierazitako proportzioa bota behar da.
**c)** Bi produktu edo gehiago nahas ditzakegu, arazorik gabe.
**d)** Zenbat eta likido gutxiago bota, orduan eta handiagoa da eraginkortasuna.

53. **Zer ureztatze-sistemak aurrezten du ur gehien?**

**a)** Difusio bidezkoak.
**b)** Erretenen bidezkoak.
**c)** Lurpeko tantaz tantakoen bidezkoak.
**d)** Ihinztadura bidezkoak.

54. **Zer urte-sasoi da onena zuhaitz bat sustrai hutsean landatzeko?**

**a)** Uda.
**b)** Negua.
**c)** Udaberria.
**d)** Udazkena.

55. **Zer izenez ezagutzen dira formazio belarkara itxiak, gramineoen espezie askotarikoak nagusi dituztenak?**

**a)** Padura.
**b)** Belardia.
**c)** Sastrakadia.
**d)** Unada.

56. **Adierazi zer dosi den egokia soropil-haziaren nahaste bat egiteko *festuca*, *poa* eta *ray-grass* espezieekin.**

**a)** 3 g/m$^2$.
**b)** 10 g/m$^2$.
**c)** 40 g/m$^2$.
**d)** 105 g/m$^2$.

57. **Zer da *galeruca*?**

**a)** Landare bat.
**b)** Eskailera mota bat.
**c)** Izurrite bat.
**d)** Onddo batek eragindako gaitza.

58. **Polietilenozko hodi bat 32 mm-koa da. Zer esan nahi du esaldi horrek?**

**a)** Barne-diametroa 32 mm dela.
**b)** Kanpo-diametroa 32 mm dela.
**c)** Barne-erradioa 32 mm dela.
**d)** Kanpo-erradioa 32 mm dela.

59. **Landare bat oidioak jota dagoenean, zer produktu erabiliko dugu aurre egiteko?**

**a)** Herbizida.
**b)** Akarizida.
**c)** Fungizida.
**d)** Intsektizida.

60. **Hosto erorkorreko zuhaitz bat ipini nahi izango bagenu, zein ipiniko genuke?**

**a)** *Ligustrum japonica* (arbustu japoniarra).
**b)** *Brachichiton populneum* (Brachichitona).
**c)** *Melia Azedarach* (paradisuko melia).
**d)** Aurrekoetako bat ere ez.

61. **Jakinik 20 m-ko mahuka bat dugula, gehienez ere zer distantziatara egon beharko dute bi ur-hargunek?**

**a)** 20 m.
**b)** 30 m.
**c)** 40 m.
**d)** 50 m.

62. **Landare hauetatik, zeinek du besteek baino sentikortasun handiagoa izozteen aurrean?**

**a)** *Acer palmatum*.
**b)** *Robinea pseudoacacia*.
**c)** *Celtis australis*.
**d)** *Evorimus japonicus*.

63. **Zein da txilar-lurraren ezaugarria?**

**a)** Materia organiko gutxi duela.
**b)** Lur azidoa dela.
**c)** Oso buztintsua dela.
**d)** Ez dela oso buztintsua.

64. **Lore-landare hauetatik, zein da udaberri-udakoa?**

**a)** Ziklamena.
**b)** *Bellis peremis*.
**c)** Indi-krabelina.
**d)** Urrebotoia.

65. **Zer da soropila aireztatzea?**

**a)** Segatu osteko hondarrak erretiratzea.
**b)** Soropilaren gainean harea aplikatzea.
**c)** Soropila garbitzea.
**d)** Lursailean zuloak egitea, airea sar dadin.

66. **Honako lan hauetatik, zeinetan da ezinbestekoa kaskoa erabiltzea?**

**a)** Tulipak ereitean.
**b)** Palmerak inaustean.
**c)** Metro 1 baino garaiera txikiagoko zuhaixkak inaustean.
**d)** Belarra mozteko makina erabiltzen den guztietan.

67. **Landare hauetatik, zein aukeratuko zenuke heskai gisa ipintzeko?**

**a)** Petuniak.
**b)** Arbustua.
**c)** Ipuruak.
**d)** Arrosondoak.

68. **Zuhaitzak landare-zorriak jota egonez gero, zer erabiliko dugu aurre egiteko?**

**a)** Herbizida.
**b)** Intsektizida.
**c)** Fungizida.
**d)** Akarizida.

69. **Lanean kargak manipulatzean.**

**a)** Hankak zuzen eduki beharko ditugu, eta bizkarra beheratu.
**b)** Hankak tolestu beharko ditugu, bizkarrari zuzen eutsita.
**c)** Hanka bat eta bizkarra flexionatu beharko ditugu.
**d)** Hankak eta bizkarra batera tolestu beharko ditugu.

70. **Zer dira txorkoak?**

**a)** Sustrai hutseko zuhaitzak.
**b)** Landareak hazteko lurrazal estaliak.
**c)** Zuhaitzei edo zuhaixkei inguruan egiten zaizkien putzuak, ureztatzeko ura metatzeko.
**d)** Ongarri espezifikoak.

71. **Zer izen dute pinuaren hostoek?**

**a)** Azikulak.
**b)** Filamentuak.
**c)** Pinu-orriak.
**d)** Pinaburua.

72. **Landare hauetako zein da hosto erorkorrekoa?**

**a)** *Brachychiton*.
**b)** Kamelia.
**c)** *Taxodium* (istingetako zipresa).
**d)** *Ligustrum* (arbustua).

73. **Nola deitzen zaio lurretik soka batekin eragiten zaion guraizeari?**

**a)** Eskuko guraizea.
**b)** Gako-guraizea.
**c)** Guraize teleskopikoa.
**d)** Ebakitzeko guraizeak.

74. **Zertan datza zotalarrotzea?**

**a)** Zuhaitzak aldatzean.
**b)** Lurra bitan ongarritzean.
**c)** Lurra bigarrenez goldatzean.
**d)** Inguruan zotalak dituzten landareak erretiratzean.

75. **Zerk laguntzen du gaixotasun fungikoak garatzen?**

**a)** Tenperatura altuek eta giro lehorrak.
**b)** Tenperatura epelek eta giro hezeak.
**c)** Tenperatura oso hotzek eta giro lehorrak.
**d)** Tenperatura epelek eta giro lehorrak.

76. **Noiz landatzen da udaberri-udan loratzen den urteko landarea?**

**a)** Urrian.
**b)** Irailean.
**c)** Apiril/maiatzean.
**d)** Urtarrilean.

77. **Zuhaitz baten adar lodi bat ebakitzeko, zer erabiliko genuke?**

**a)** Heskai-moztekoa.
**b)** Gako-guraizea.
**c)** Motozerra.
**d)** Eskuko guraizeak.

78. **Zer erabiliko dugu 2 zentimetro baino gutxiagoko adarrak ebakitzeko?**

**a)** Gako-guraizea.
**b)** Eskuko guraizeak.
**c)** Motozerra.
**d)** Muxarratzeko guraizeak.

79. **Hektarea batek 10.000 $m^2$ dituela jakinda, zenbat metro koadro izango dira 5 hektareatan?**

**a)** 25.000 $m^2$.
**b)** 50.000 $m^2$.
**c)** 30.000 $m^2$.
**d)** 5.000 $m^2$.

80. **Belar gaiztoak irten aurretik errotik kentzeko, zer erabiliko dugu?**

**a)** Larrialdi osteko herbizida bat.
**b)** Sufrea.
**c)** Larrialdi aurreko herbizida bat.
**d)** Ongarria.

81. **Zuhaitz baten hostoek indarra eta kolorea galduz gero, zer erabiliko dugu konpontzeko?**

**a)** Ongarri foliarra.
**b)** Intsektizida.
**c)** Herbizida.
**d)** Ezer ez.

82. **Zein da garairik egokiena soropila landatzeko?**

**a)** Negua.
**b)** Uda.
**c)** Udaberria.
**d)** Udazkena.

83. **Zein da paisaia-arrosondoaren ezaugarria?**

**a)** Loraketa ugaria.
**b)** Lore handiak eta usain handikoak.
**c)** Lore zuriak bakarrik izatea.
**d)** 15 m garai izatera iristea.

84. **Nork erabiltzen ditu batez ere ebakien kontrako galtzak?**

**a)** Motozerrarekin lan egiten dutenek.
**b)** Iturginek.
**c)** Herbizidekin lan egiten dutenek.
**d)** Elektrikariek.

85. **Landareei erasotzen dieten intsektuei aurre egiteko, zer erabiltzen da batez ere?**

**a)** Inausketa.
**b)** Intsektizidak.
**c)** Sendagai antidepresiboak.
**d)** Lursaila lantzea.

86. **Nola egin behar dira garaierako inausketa-lanak?**

**a)** Plataforma jasotzaile batetik.
**b)** Zuhaitzean gora igota.
**c)** Ezin dira egin.
**d)** Lurretik.

87. **Zer da turba?**

**a)** Substratu bat.
**b)** Intsektizida bat.
**c)** Landare bizikor bat.
**d)** Aitzur bat.

88. **Zenbat $m^2$ ditu hektarea batek?**

**a)** 10.000 $m^2$.
**b)** 4 $m^2$.
**c)** 19 $m^2$.
**d)** 2.000 $m^2$.

89. **Zer da platano arrunta?**

**a)** Zuhaitz bat.
**b)** Kolore gorriko landare bat.
**c)** Fruitu jangarri bat.
**d)** Eguberrietako zuhaitz bat.

90. **Arrosadi batean belar gaiztoak agertzen direnean, zer erabiliko dugu?**

**a)** Herbizida orokor bat.
**b)** Ura eta sufrea.
**c)** Herbizida selektibo bat.
**d)** Nitratoa.

91. **Intsektizida baten etiketan garezur bat agertzen baldin bada T hizkiarekin, zer esan nahi du?**

**a)** Pozoitsua dela.
**b)** Toxikoa dela.
**c)** Kaltegarria dela.
**d)** Narritagarria dela.

92. **Gorrina landareak jotzen dituen gaitza da. Zerk eragiten du?**

**a)** Onddoek.
**b)** Intsektuek.
**c)** Birusek.
**d)** Gehiegizko giro lehorrak.

93. **Botritisa landareak jotzen dituen gaitza da. Zerk eragiten du?**

**a)** Onddoek.
**b)** Intsektuek.
**c)** Birusek.
**d)** Gehiegizko giro lehorrak.

94. **Zer dira nematodoak?**

**a)** Harrak.
**b)** Birusak.
**c)** Onddoak.
**d)** Bakterioak.

95. **Zeri aurre egiteko erabiltzen dira akarizidak landareetan?**

**a)** Onddoei.
**b)** Nematodoak.
**c)** Akaroak.
**d)** Erbiei.

96. **Zerk eragindako gaitzetarako baliatzen dira fungizidak?**

**a)** Nematodoek.
**b)** Akaroek.
**c)** Onddoek.
**d)** Birusek.

97. **Zeren aurka egiteko erabiltzen dira sator-pozoiak?**

**a)** Nematodoen aurka.
**b)** Marraskarien aurka.
**c)** Sator eta lursaguen aurka.
**d)** Onddoen aurka.

98. **Zer prebenitzeko eta sendatzeko erabiltzen da sufrea?**

**a)** Oidio-onddoa.
**b)** Nematodoak.
**c)** Akaroak.
**d)** Bakterioak.

99. **Zertarako inausten da heskai bat garaiera erdian, landatu ostean?**

**a)** Itxura ematen joateko.
**b)** Bigarren mailako kimuak sortzen laguntzeko.
**c)** Tratamendu fitosanitario gisa.
**d)** Oinezkoei segurtasuna emateko.

100. **Zeri deitzen diogu izerdi ondua?**

**a)** Goranzkoari.
**b)** Beheranzkoari.
**c)** Zuzenak dira biak.
**d)** Sintesi kimikotik sortuari.

101. **Zeri aplikatzen zaio «berdintzaile» terminoa?**

**a)** Soropila mozteko makinari.
**b)** Karrakailuari.
**c)** Molduretarako guraizeari.
**d)** Langileei soldata ordaintzeari.

102. **Honako erreminta hauetatik, zein da gutxien gomendatzen dena diametro zabaleko adarrak inausteko?**

**a)** Inausteko zerrotea.
**b)** Trontzatzeko arkua.
**c)** Inausketako aizkora.
**d)** Metaletarako zerra mekanikoa.

103. **Zer dira sustrai arrotzak?**

**a)** Tankera zurkara dutenak.
**b)** Lurpetik irteten eta lurperatuta egoten direnak.
**c)** Zurtoinetik abiatzen direnak.
**d)** Sortu berriak.

104. **Zer da izerdi gordina?**

**a)** Beherantz zirkulatzen duena, hostoetatik landarearen gainerako zatietara.
**b)** Sustraietatik landarearen gainerako zatietara igotzen dena.
**c)** Landareak izerdi ondua kontsumitzetik sortutako produktua.
**d)** Nutriente asko dauzkana.

105. **Zer neurri hartu behar dira produktu sukoiak eta hegazkorrak biltegiratzean?**

**a)** Gela estankoetan gordetzea.
**b)** Hezetasun-maila handia gordetzen duen gela bat erabiltzea.
**c)** Egokiro eta etengabe aireztatzea.
**d)** Hautsontzi bat ipintzea erretzaileentzat.

106. **Zeri deitzen diogu errizoma?**

**a)** Substantzia nutritiboak dituen sustrai luzexkari.
**b)** Substantzia nutritiboak dituen lurpeko zurtoinari.
**c)** Erraboilak bezala substantzia nutritiboak dituen lurpeko zurtoinari.
**d)** Sustraiaren zati kiribilduari.

107. **Zertarako egiten da gerri-adarren inausketa?**

**a)** Zuhaitza aireztatzeko.
**b)** Zuhaitza soiltzeko.
**c)** Behealdeko adarrak eta hostoak erretiratzeko.
**d)** Langilea adarrekin ez katigatzeko.

108. **Zer familiatan sartuko genuke aitzur txikia?**

**a)** Aitzurrak.
**b)** Igitaiak.
**c)** Segak.
**d)** Zulagailuak.

109. **Zeri egiten dio erreferentzia eskokatu terminoak?**

**a)** Lursail baten lurrazaletik belarrak, hostoak eta adarrak kentzeari.
**b)** Lursailean lehendabiziko aitzurketa egiteari.
**c)** Lorategi bateko belazea berdintzeari.
**d)** Hartxingadi bat garbitzeari.

110. **Udan aldatu behar dira lurrik gabe, sustraiak agerian dituela, eskuratutako zuhaitzak?**

**a)** Ez.
**b)** Bai.
**c)** Klimaren arabera.
**d)** Freskatzen badu bakarrik.

111. **Zer nola antolatzen dira hiruzuloka landatutako zuhaitzak?**

**a)** Bata bestearen parean, paraleloan.
**b)** Bi ilara paralelotan, zuhaitz bakoitzak parean zuhaitzik ez duela.
**c)** Binakako ilaran, diagonalean.
**d)** Ziri-parpailak balira bezala.

112. **Nola deitzen zaio elementu mineralak argiaren energiaren bidez elementu organiko bihurtzeari?**

**a)** Funtzio fotosintetikoa.
**b)** Klorofila.
**c)** Funtzio fotokimikoa.
**d)** Sintesi inorganikoa.

113. **Adierazi zein diren landareentzat ezinbestekoak izanik lurzoruak ematen ez dituen elementuak.**

**a)** Karbonoa eta oxigenoa.
**b)** Nitrogenoa, fosforoa eta potasioa.
**c)** Nitrogenoa, oxigenoa eta karbonoa.
**d)** Argia eta beroa.

114. **Nola deitzen zaio zuhaitz baten nukleoari?**

**a)** Cambiuma.
**b)** Xilema.
**c)** Zurgiharra.
**d)** Lignina.

115. **Nola deitzen zaio landarearen zurtoina eta sustraia batzen dituen puntuari?**

**a)** Hanka.
**b)** Lepoa.
**c)** Elkargunea.
**d)** Motzondoa.

116. **Zein da inausteko sasoirik onena?**

**a)** Apirila.
**b)** Urtarrila.
**c)** Maiatza.
**d)** Abendua.

117. **Nola deitzen dira landareei ematen zaizkien gatz mineralak, gizakiak sintetikoki fabrikatuak?**

**a)** Ongarri edo ongailu mineralak.
**b)** Substratuak.
**c)** Nitratoak.
**d)** Fosfatoak.

118. **Zer jatorri dauka hauts ugarien eta ohikoenak?**

**a)** Minerala.
**b)** Organikoa.
**c)** Begetala.
**d)** Tabakoa.

119. **Babes indibidualeko zer ekipamendu erabili behar dira basogintzako peoi aritzeko?**

**a)** Kaskoa, belarri-babesa, babesteko betaurrekoak edo pantaila, eskularruak eta segurtasun-botak.
**b)** Kaskoa, belarri-babesa, babesteko betaurrekoak edo pantaila, eskularruak eta, motozerra edo sasi-garbitzeko makina erabili behar izanez gero, ebakien kontrako galtzak.
**c)** Kaskoa, belarri-babesa, babesteko betaurrekoak edo pantaila, eskularruak, segurtasun-botak eta, motozerra edo sasi-garbitzeko makina erabili behar izanez gero, ebakien kontrako galtzak.
**d)** Belarri-babesa, babesteko betaurrekoak edo pantaila, eskularruak, segurtasun-botak eta, motozerra edo sasi-garbitzeko makina erabili behar izanez gero, ebakien kontrako galtzak.

120. **Zer da eskokatzea?**

**a)** Nahi ez ditugun espezieak kentzea, ditugun zuhaitzen ura eta nutrienteak eskuratzeko lehiatzen baitira.
**b)** Nahi ez ditugun espezieak kentzea, ditugun zuhaitz-espezieen nutrienteak eskuratzeko lehiatzen baitira.
**c)** Belar gaiztoak bakarrik kentzea.
**d)** Adar okertu edo ihartuak zuhaitzetatik kentzea.

121. **Sasi-garbitzeko makinarekin lan egitean, zer distantziatara egon behar dugu gainerako pertsona edo animaliengandik?**

**a)** Ez dago gutxieneko distantziarik.
**b)** Gutxienez 15 metrora.
**c)** Gehienez ere 2 metrora.
**d)** Sasi-garbitzeko makinarekin ari garenean, beti bakarrik jardungo dugu, inguruan inor ez dela, istripuak saihesteko.

122. **Zergatik inausten da?**

**a)** Landarea gidatzeko eta adaburuari itxura emateko.
**b)** Landarea gidatzeko, adaburuari itxura emateko eta fruituak ematea errazteko.
**c)** Landarea gidatzeko, haren osasunari eusteko eta loreen zein fruituen kalitatea handitzeko.
**d)** Nahitaezkoa delako.

123. **Zertarako erabiltzen dira hortzak sasi-garbitzeko makina batean?**

**a)** Sastrakak ebakitzeko.
**b)** Sasitzak eta belar gaiztoak ebakitzeko.
**c)** Soropila ebakitzeko.
**d)** Sasi-garbitzeko makinetan, ez da erabiltzen hortzik.

124. **Inausketako erremintei dagokienez, zein da okerra honako esaldi hauetatik?**

**a)** Guraizeak eta zerroteak inausketarako erremintak dira.
**b)** Sasi-garbitzeko makinak, aiztoak eta azazkalak moztekoak inausketarako erremintak dira.
**c)** Motozerrak inausketarako erremintak dira.
**d)** Adarrak eta heskaiak ebakitzekoak inausketarako erremintak dira.

125. **Bi denborako edo zikloko motorretan, zer erregai erabiltzen da?**

**a)** Gasolioa eta olioa.
**b)** Gasolina superra.
**c)** Berunik gabeko gasolina eta olioa.
**d)** Nahasitako gasolina.

126. **Adierazi zein den erantzun zuzena:**

**a)** Gaitzak jotako landareak ez dira inausiko, gaixotasunak kutsatzea saihesteko.
**b)** Inausketan erabilitako erremintek behar bezain zorrotz egon beharko dute, eta kalitate onekoak izan, gaixotasunak kutsatzea saihesteko.
**c)** Inausketan erabilitako erremintek garbi egon beharko dute, gaixotasunak kutsatzea saihesteko.
**d)** Inausketan erabilitako erremintek garbi eta behar bezain zorrotz egon beharko dute, gaixotasunak kutsatzea saihesteko.

127. **Zein da «adarrak soiltzeko» inausketa-teknikaren helburua?**

**a)** Zuhaitzak goraka hazteari uztea, zabalean haz dadin.
**b)** Maiz ebakitzea, zuhaitzen edo zuhaixken profilari eusteko, itxura geometrikoak edo artistikoak izan ditzaten.
**c)** Adarretatik adarkatze ugari kentzea, betiere gidaria errespetatuta.
**d)** Adar nagusien egitura izango denaren adarrak aukeratzea.

128. **Material pikordunez egindako eta % 6ko malda duten bideak ez hondatzeko, nola jokatuko da?**

**a)** Zeharkako maldak eta ponpaketak bide-ertzetara zuzenduta, euri-urari bidearen gainazaletik igarotzen laguntzeko.
**b)** Zeharkako maldak eta ponpaketak bide-ertzetara zuzenduta, euri-ura ez dadin igaro bidearen gainazaletik eta ez dezan eraman materialik arrastaka.
**c)** Luzetarako maldak eta ponpaketak bide-ertzetara zuzenduta, euri-ura ez dadin igaro bidearen gainazaletik eta ez dezan eraman materialik arrastaka.
**d)** Kamioi astunei tankera honetako bideetan sartzea galarazita.

129. **Fungizidak produktu fitosanitarioak dira?**

**a)** Ez.
**b)** Bai.
**c)** Ez, herbizidak dira produktu fitosanitarioak.
**d)** Bai, akaroen jarduna galarazten dute.

130. **Ureztatze-sistema bat instalatu nahi da 10 m luze eta 4 m zabal den lorategi batean. Ureztatzeko zer sistema izango da egokiena?**

**a)** Tanta bidezko ureztatzea.
**b)** Difusore bidezko ureztatzea.
**c)** Aspertsore bidezko ureztatzea.
**d)** Uholde bidezko ureztatzea.

131. **Esango zenuke zein den gaur egun arteari gehien eragiten dion gaitza?**

**a)** Oidioa.
**b)** Usteltze zuria.
**c)** Ihartzea.
**d)** Zureko onddoak.

132. **Zer ekipamendu erabil litezke tratamendu fitosanitarioak egiteko?**

**a)** Lainoztagailuak eta fumigagailuak.
**b)** Lainoztagailuak, hautseztagailuak eta fumigagailuak.
**c)** Lainoztagailuak, hautseztagailuak, fumigagailuak eta zentrifugoak.
**d)** Hautseztagailuak eta fumigagailuak.

133. **Ongarri-zaku batean, 12, 24 eta 12 zenbakiak ageri dira. Zer esan nahi dute?**

**a)** Nitrogenoa, fosforoa eta potasioa.
**b)** Fosforoa, nitrogenoa eta potasioa.
**c)** Potasioa, fosforoa eta nitrogenoa.
**d)** Fosforoa, potasioa eta nitrogenoa.

134. **Zein da artelatzaren produkturik preziatuena eta zer garaitan ateratzen da?**

**a)** Kortxoa; negu-partean ateratzen da, izerdiak zirkulatzen ez duen garaian, zuhaitzari kalterik ez egiteko.
**b)** Kortxoa; uda-partean ateratzen da, izerdiak zuhaitzean zirkulatzen duenean eta askatzea errazagoa denean.
**c)** Ezkurra; udazkenean biltzen da.
**d)** Kortxoa; edozer urte-sasoitan ateratzen da, erraz askatzen baita helduta dagoenean.

135. **Zertan datza produktu fitosanitarioen garbiketa hirukoitza?**

**a)** Landareak hirutan ureztatzean, edozer produktu fitosanitario aplikatu aurretik.
**b)** Eskuak hirutan garbitzean, edozer produktu fitosanitario aplikatu ostean.
**c)** Produktu fitosanitarioa gordetzen zuen ontzia hirutan garbitzean, amaitu ostean.
**d)** Okerrak dira aurreko erantzun guztiak.

136. **Zer erabiliko dugu lorategiak ureztatzeko polietilenozko (pe) hodi batean?**

**a)** Lotzeko piezak edo polietilenozko (PE) zorroak, junturak bridatuta baitauzkate.
**b)** Lotzeko piezak edo polietilenozko (PE) zorroak, kola bereziekin itsasten baitira.
**c)** Lotzeko piezak edo polietilenozko (PE) zorroak, PVCzkoak baino merkeagoak baitira.
**d)** Lotzeko piezak edo polietilenozko (PE) zorroak, juntura torikoak baitauzkate.

137. **Herbizida sistemikoak.**

**a)** Erortzen den tokiko hostoak eta zurtoin berdeak suntsitzen ditu, baina ez da sustraietara iristen.
**b)** Lurzoruan aplikatzen dira, eta ernetzean eta plantulak sortzeko prozesuan eragiten dute.
**c)** Landarearen gainean aplikatzen dira, xurgatu egiten dira eta, floemaren bidez landarearen beste inguru batzuetara zabaltzean, tratatzeko garaian herbizidak ukitu gabeko beste eremu batzuetan ere eragiten dute.
**d)** Eskuarki, denbora laburrean degradatzen dira; hori dela eta, aplikatzeko garaian azpian harrapatzen dituzten landareen gainean soilik eragiten dute.

138. **Produktu fitosanitario bat aplikatu behar dugu 15 litroko motxila batekin, bide-ertz batean. Produktu fitosanitarioaren zer dosi erabiliko dugu?**

**a)** 250 zentimetro kubiko 15 litro ur dituen motxila bakoitzeko.
**b)** Produktu fitosanitarioaren etiketan ageri diren dosifikazioari eta baimendutako aplikazio-argibideei jarraituko diegu.
**c)** Segun eta zer sasitza mota tratatu nahi dugun.
**d)** Dosi kontzentratu bat baliatuko dugu, produktu fitosanitarioak efektibitate handiagoa izan dezan.

139. **Lorategi batean haurrentzako jolastokia dago (txirristak, zabuak…), Eta zuhaitzak landatu nahi dira, itzal egiteko.**

**a)** Zuhaitzak landatzeko garaian, haur-jolas bakoitzaren segurtasun-eremua errespetatuko da.
**b)** Zuhaitzak jolasetatik ahalik eta gertuen landatuko dira, itzal hobea egiteko.
**c)** Zuhaitz-espezie itzaltsuenak landatuko dira.
**d)** Zuhaitz-espezieak lursail motaren arabera landatuko dira, eta jolasetatik ahalik eta gertuen.

140. **Soropila duen loretegi-eremu bat hobetu nahi da, toki batzuetan hartxintxarra botata. Nola egingo da?**

**a)** Hartxintxarra botako den tokia zuinkatu behar da; ondoren, hondeatu, xafla metaliko bat ipini eta hartxintxarra botako da.
**b)** Hartxintxarra botako den tokia zuinkatu behar da; ondoren, hondeatu, estalki geotestila ipini eta hartxintxarra botako da.
**c)** Hartxintxarra botako den tokia zuinkatu behar da; ondoren, hondeatu, xafla metaliko bat eta estalki geotestila ipini, eta hartxintxarra botako da.
**d)** Hartxintxarra botako den tokia zuinkatu behar da; ondoren, hondeatu, xafla metaliko bat eta lur begetala ipini, eta hartxintxarra botako da.

141. **Zerekin batera biltegiratu behar dira beti produktu fitosanitarioak?**

**a)** Biltegian diren gainerako material arriskutsuekin batera (erregaiak eta abar), baina aireztapen naturala den toki batean.
**b)** Beti segurtasun-armairuetan eta giltzaz itxita, gainerako material arriskutsuekin batera (erregaiak eta abar), aireztapen naturala edo behartua den eremu batean eta ez erretzeko seinaleak jarrita.
**c)** Beti segurtasun-armairuetan eta giltzaz itxita, gainerako material arriskutsuekin batera (erregaiak eta abar), aireztapen naturala edo behartua den eremu batean, ez erretzeko seinaleak jarrita eta isuriak biltzeko azpil bat ipinita.
**d)** Beti segurtasun-armairuetan, giltzaz itxita, ez erretzeko seinaleak jarrita, isuri posibleak biltzeko azpila ipinita eta sekula ere ez gainerako material arriskutsuekin batera (erregaiak eta abar).

142. **Gomendatzen da ihinztatze bidezko ureztatzea saihestea edo etetea, baldin eta haizearen abiadurak honako abiadura hau gainditzen badu:**

**a)** 20 m/s.
**b)** 4 m/s.
**c)** 4 km/h.
**d)** 80 km/h.

143. **Zer inausketa mota egin behar da espezie guztietan?**

**a)** Fruktifikazio-inausketa, fruitu gehiago emateko.
**b)** Hostoak indartzekoa.
**c)** Formazio-inausketa.
**d)** Garbitzekoa eta/edo osasun-inausketa.

144. **Produktu hauetatik, zein erabili ohi da jorratze kimikorako?**

**a)** Dakonila.
**b)** Glifosatoa.
**c)** Nitratoa.
**d)** Potasioa.

145. **Urte-sasoiko landareak (loreak eta erraboildunak) berriro sartu aurreko eragiketa gisa, lehengo substratua kendu eta ordeztu egin behar da, gutxienez honako sakonera honekin:**

**a)** Ez da beharrezkoa lehengo substratua ordeztea.
**b)** 5 cm drainatze-lerroaren gainetik.
**c)** 25 cm drainatze-lerroaren gainetik.
**d)** 10 cm drainatze-lerroaren gainetik.

146. **Zer dira afidoak?**

**a)** Kolore horiko intsektu txikiak, hostoak tantotzen dituztenak.
**b)** Intsektu txikiak, landareetan bizkor mugitzen direnak.
**c)** Landare-zorriak, loreen kolorea eta neurria murrizten duen likido bat botatzen dutenak.
**d)** Onddo bat, hostoei eraso egiten diena.

147. **Kasu hauetatik, zein da lurzoru alkalinoa?**

**a)** Lurzoru azidoa.
**b)** pH-a 9 duen lurzorua.
**c)** Ez azidoa eta ez basikoa ez den lurzorua.
**d)** pH-a 5,5 duen lurzorua.

148. **Zer prozedurari jarraitu behar zaio onddoek edo bakterioek infektatutako zuhaitz bat inausi ondoren?**

**a)** Erremintak garbitzea, baselina-oliotan sartuta.
**b)** Erremintak urez bakarrik garbitzea.
**c)** Erremintak garbitzea, % 70ean desnaturalizatutako alkoholarekin edota etxeko likido zuritzailearekin.
**d)** Ez dago prozedura berezirik egin beharrik.

149. **Zerk eragiten du landareak berdeak izatea?**

**a)** Zelulosak.
**b)** Klorofilak.
**c)** Anhidrido karbonikoak.
**d)** Karbonoaren jardunak.

150. **Lurzoruak drainatzeko gaitasun handiagoa izan dezan, zer erabiltzen da medeapen gisa?**

**a)** Birrinketatik lortutako hondarrak.
**b)** Ibaietako hondarrak.
**c)** Ertz biziak dituzten hondarrak.
**d)** Hondar industrialak.

151. **Zer eragiten du landareetan eta zuhaitzetan potasioa erabiltzeak?**

**a)** Hostoak ugaritzea eta loraketa murriztea.
**b)** Loraketa handiagoa.
**c)** Ahultasun handiagoa izurrite edo gaitzen bat izanez gero.
**d)** Hostotza murriztea.

152. **Lorezaintzan, sustrai guztiak berdinak direnean eta zona ia esferiko bat hartzen dutenean, zer izen dute?**

**a)** Pibotatzaileak.
**b)** Gainazalekoak.
**c)** Sortakatuak edo faszikulatuak.
**d)** Sarekarak edo erretikulatuak.

153. **Nola esaten zaio lorean sepalo izeneko kolore berdeko hosto sendoz eratua dagoen kanpo-estaldurari?**

**a)** Korola.
**b)** Kaliza.
**c)** Ezamihilua.
**d)** Denak dira zuzenak.

154. **Aldaxka bidezko ugalketan, zer lortzen da?**

**a)** Askoz landare handiago eta sendoagoak.
**b)** Aldaxkarena bezalako landareak.
**c)** Aldaxkarena baino landare txikiagoak.
**d)** Landare osasuntsuagoak.

155. **Orbel-erratza:**

**a)** Metalezko hagaxka lau eta elastikoz osatuta egoten da.
**b)** Belar txarrak kentzeko erabiltzen da.
**c)** Erratz arrunta da, baina zurdak handiagoak dira eta bereizita daude.
**d)** Ez dago horrelako erratzik.

156. **Zer izen du zurtoinari lotzen zaion hostoak?**

**a)** Orria.
**b)** Hosto-gainaldea.
**c)** Begia.
**d)** Pezioloa.

157. **Zer egin liteke lurzoru hareatsu bat zuzentzeko edo hobetzeko?**

**a)** Simaurra erantsi.
**b)** Zenbait aldiz luberritu.
**c)** Lur-zizareak erabili.
**d)** Karea erantsi.

158. **Mahuka bat erabiltzen denean, nola ureztatu behar da?**

**a)** Landarearen goialdea bustiz.
**b)** Landarearen oinarria bustiz.
**c)** Ahal den lur gehiena hezetuz.
**d)** Ura ahal den presiorik handienarekin ateratzen saiatuz.

159. **Loreontziaren edo edukiontziaren barneko zuloa:**

**a)** Ez da beharrezkoa, apaingarri hutsa da.
**b)** Aireari sartzen laguntzen dio.
**c)** Istiltzea onartzen ez duten espezieetarako bakarrik egiten da.
**d)** Ez da egiten ura aurreztu nahi bada.

160. **Zertarako balio du konpresoreak?**

**a)** Aire konprimatua fabrikatzeko eta gordetzeko.
**b)** Gainazal handiak margotzeko eta pintura barreiatzeko.
**c)** Tailerretan erabiltzen da, automobilak, ateak eta abar margotzeko eta bernizatzeko.
**d)** Euskarri prestatuen gainean partikulak lehorrean jaurtitzeko.

161. **Zeren unitatea da metro kubikoa?**

**a)** Edukierarena.
**b)** Azalerarena.
**c)** Luzerarena.
**d)** Bolumenarena.

162. **Zer motatako langilea da lorezaintzako peoia?**

**a)** Egiten duen lanerako behar den trebakuntza duena.
**b)** Egiten duen lanerako behar den trebakuntza ez duena.
**c)** Lorezaintzako ezagutza sakonak dituena.
**d)** Lorezaintzako oinarrizko ezagutzak dituena.

163. **Landare gehienek pigmentu bat dute, argi-energia hartzen duena eta elementu mineralak landarearentzako elikagai bihurtzeko erabiltzen duena. Zer izen du elementu horrek?**

**a)** Klorofilia.
**b)** Klorofila.
**c)** Korola.
**d)** Berdifila.

164. **Nori lagundu behar dio lorezaintzako peoiak?**

**a)** Maisuari.
**b)** Lehen mailako ofizialari.
**c)** Ikuskatzaileari.
**d)** Arduradunari.

165. **Zer da aldaxka?**

**a)** Zurtoin bat.
**b)** Hazi bat.
**c)** Lore bat.
**d)** Sustrai bat.

166. **Esaten da lur bat alkalinoa dela haren pH-a balio hauen artean dagoenean:**

**a)** 4,5 eta 5,5.
**b)** 7 eta 7,5.
**c)** 6,5 eta 7,5.
**d)** 7,5 eta 8,5.

167. **Landare bati berdetasuna eman nahi badiogu eta haztea sustatu nahi badugu, ongarri hau erabiliko dugu:**

**a)** Nitrogenoa.
**b)** Fosforoa.
**c)** Potasioa.
**d)** Amonikoa.

168. **Lurzoru bat ura metatzeko duen ahalmenari buruz ari garenean, lurzoru horren zer ari gara aipatzen?**

**a)** Zimeldura-puntua.
**b)** Eremu-kapazitatea.
**c)** Metagarritasuna.
**d)** Landareak erabil dezakeen ura.

169. **Zanga bat ireki behar badugu, zer erabiliko dugu?**

**a)** Pikotxa eta pala.
**b)** Alperra.
**c)** Alperra eta pala.
**d)** Pikota.

170. **Zer izen du lurrak garbitzeko eta hondeatzeko erabiltzen den makinak?**

**a)** Estrusio-makina.
**b)** Bulldozerra.
**c)** Draga.
**d)** Konpresorea.

171. **Lur soltea edo hareatsua duen lurzoru batean hondeaketa bat eskuz egin behar bada, zer erreminta erabiliko dugu?**

**a)** Pikotxa eta pala.
**b)** Pala bakarrik.
**c)** Hondeaitzurra besterik ez da behar.
**d)** Pikotxa eta hondeaitzurra.

172. **Batez beste zer ur-portzentaje behar du lorategi bateko soropilak?**

**a)** % 10.
**b)** % 50.
**c)** % 75.
**d)** % 1.

173. **Landare hauetako zein ez da belarki gisa sailkatzen?**

**a)** Tulipa.
**b)** Gorostia.
**c)** Garraiska (*Melissa* sp.).
**d)** Denak dira belarkiak.

174. **Zer plagatarako dira egokiak marigorringoak?**

**a)** Kukurutxa.
**b)** Euli zuria.
**c)** Landare-zorria.
**d)** Arratoia.

175. **Soropila biziberritzeko eta zoruaren gainazalean sortzen den feltroa hausteko, hortz batzuekin ebaki eta urratu ohi da. Zer izen du prozesu horrek?**

**a)** Segatu.
**b)** Area pasatu.
**c)** Hondeatu.
**d)** Hondoratu.

176. **Ongarri hauetako zein ez da ongarri organiko gisa sailkatzen?**

**a)** Konposta.
**b)** Guanoa.
**c)** Nitratoa.
**d)** Denak dira organikoak.

177. **Hauetako zein ez da ureztatze-jardun egokia?**

**a)** Eguerdiko eguzkiarekin ureztatzea saihestea.
**b)** Ur gutxiago ematea landarea haizeen mende baldin badago.
**c)** Ahal bada, hobe tantakako ureztapena aspertsiozkoa baino.
**d)** Denak dira jardun egokiak.

178. **Adierazi zein diren landareentzat ezinbestekoak izanik lurzoruak ematen ez dituen elementuak.**

**a)** Karbonoa eta oxigenoa.
**b)** Nitrogenoa, fosforoa eta potasioa.
**c)** Nitrogenoa, oxigenoa eta karbonoa.
**d)** Uranioa eta oxigenoa.

179. **Lan-munduan, zer da NBEa?**

**a)** Narritaduratik babesteko ekipamendua.
**b)** Norbera babesteko ekipamendua.
**c)** Neurriak bideratzeko ekipamendua.
**d)** Noiznahi babesteko ekipamendua.

180. **Lorezaintzan, zer izen du hostoen gainean zipriztinduta hostoek xurgatzen duten ongarria emateko teknikak?**

**a)** Tantakako ongarritzea.
**b)** Ongarritze foliarra.
**c)** Ongarritze sistematikoa.
**d)** Ongarritze aberastua.

181. **Zuhaitz hauetako zein da espezie «erretxinaduna»?**

**a)** Zedroa.
**b)** Zumarra.
**c)** Makala.
**d)** Erkametza.

182. **Hauetako zein da 20.583 m²-ren baliokidea?**

**a)** 20 hektarea eta 583 zentiarea.
**b)** 2 hektarea, 5 area eta 83 zentiarea.
**c)** 0,20583 $km^2$.
**d)** 2 hektarea, 50 area eta 3 zentiarea.

183. **Erreminta hauetako zein erabiliko zenuke lorategi batean lurra berdintzeko eta harriak kentzeko?**

**a)** Lorategiko eskuarea.
**b)** Hondeiatzurra.
**c)** Sardea.
**d)** Sega.

184. **Zer ureztaketa-sistema erabiltzen da gehienetan soropilean?**

**a)** Tantakako ureztapena.
**b)** Ureztapen lokalizatua.
**c)** Aspertsiozko ureztapena.
**d)** Sakabanatzezko ureztapena.

185. **Arau orokor gisa, zer inausketa egiten da hazkuntza erregulatzeko?**

**a)** Neguko inausketa.
**b)** Formazio-inausketa.
**c)** Lepaketa.
**d)** Udako inausketa.

186. **Landareentzako agente kaltegarrien aurka borrokatzeko substantzia edo osagaiei pestizida deritze. Zer izen dute onddoen aurkakoek?**

**a)** Akarizidak.
**b)** Fungizidak.
**c)** Helizidak.
**d)** Nematizidak.

187. **Klorofila duten organismoek energia hartzen dute argi gisa, eta energia kimikora eraldatzen dute. Zer izen du prozesu horrek?**

**a)** Fotolisia.
**b)** Fotokimika.
**c)** Fotosintesia.
**d)** Fototipia.

188. **Zer izen du karrakatzeko erabiltzen den aitzur txikiak?**

**a)** Errasketa.
**b)** Igeltsero-aitzurra.
**c)** Palarra.
**d)** Mutxarda.

189. **Lan bat egin behar eta Norbera Babesteko Ekipamendu (NBE) egokirik ez baduzu, zer egin behar duzu?**

**a)** Lana kontu handiz egin.
**b)** Lan-arriskuen prebentzio-arauak kontuan ez hartu.
**c)** Lan hori ez egin NBEa izan arte.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

190. **Aspertsoreak honelakoak izan ldaitezke:**

**a)** Estatikoak.
**b)** Beso birakaria dutenak.
**c)** Aldizkako ihinztatze edo ihinztatze oszilatzailekoak.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

191. **Lorezaintzan, zer da «ondoztatzea»?**

**a)** Ureztatzeko teknika bat.
**b)** Laborantzako teknika bat.
**c)** Ongarritzeko teknika bat.
**d)** Inausteko teknika bat.

192. **Lorategiko bareen eta barraskiloen izurritea amaitzeko, zer produktu erabiliko genuke?**

**a)** Fungizida.
**b)** Bakterizida.
**c)** Helizida.
**d)** Herbizida.

193. **Sustraien egitekoa izaten da landarea lurrean finkatzea eta nutrienteak xurgatzea. Nola deitzen zaio nutrienteak xurgatzeko prozesuari?**

**a)** Esklerosia.
**b)** Osmosia.
**c)** Tronbosia.
**d)** Klorosia.

194. **Zer dira afidoak?**

**a)** Kolore horiko intsektu txikiak, hostoak tantotzen dituztenak.
**b)** Intsektu txikiak, landareetan bizkor mugitzen direnak.
**c)** Landare-zorriak, loreen kolorea eta neurria murrizten duen likido bat botatzen dutenak.
**d)** Onddo bat, hostoei eraso egiten diena.

195. **Nola deitzen zaio zurtoin oso laburrari, beheko aldean sustrai haritsuak eta goiko aldean ernamuin bat dituenari?**

**a)** Errizoma.
**b)** Tuberkulua.
**c)** Erraboila.
**d)** Zipoliformea.

196. **Zurtoinak egoeraren eta tankera horretako beste zenbait irizpideren arabera sailkatu daitezke. Honelakoak izan daitezke:**

**a)** Airekoak, lurpekoak eta uretakoak.
**b)** Airekoak eta arruntak.
**c)** Airekoak, arruntak eta lurpekoak.
**d)** Airekoak bakarrik.

197. **Zurtoin gehienak airekoak izan ohi dira, eta…**

**a)** Lurzoruaren gainetik hazten dira, eta eskuarki tente zutiturik.
**b)** Lurzoruaren gainetik hazten dira, eta eskuarki modu bigunean.
**c)** Eskuarki, ez dira hazten lurzoruaren gainetik.
**d)** Beti izaten dira bigunak.

198. **Zurtoin herrestari batzuk horizontalean hazten dira, lurrarekin kontaktuan, eta sustraiak ematen dituzte. Nola deitzen zaie sustrai horiei?**

**a)** Tepaloak.
**b)** Plumula.
**c)** Estoloia.
**d)** Uztondoa.

199. **Zurtoinen sailkapenaren barruan, haien kokapena kontuan hartuta, lurpekoak ditugu. Haien artean, zenbait motatakoak daude:**

**a)** Tuberkulua eta erraboila.
**b)** Tuberkulua, erraboila eta errizoma.
**c)** Tuberkulua, erraboila, errizoma eta pibotatzailea.
**d)** Tuberkulua, erraboila, errizoma, pibotatzailea eta sortakatua.

200. **Honako hauetako zeinen elementua da ureztatzeko aspertsorea?**

**a)** Motozerrarena.
**b)** Heskai-moztekoarena.
**c)** Ongarriarena.
**d)** Aurrekoetako batena ere ez.

201. **Motokultorea lorezaintzako erreminta mekaniko bat da. Zertarako balio du zehazki?**

**a)** Lursailak eskokatzeko.
**b)** Adarrak ebakitzeko.
**c)** Soropil gogorrena ebakitzeko.
**d)** Lursaila goldatzeko.

202. **Zertarako erabiltzen dira errakoreak izeneko instrumentuak?**

**a)** Inausketarako.
**b)** Ureztatzeko.
**c)** Segatzeko.
**d)** Aratzeko.

203. **Zertarako erabiltzen da sardea?**

**a)** Adarrrak eta hostoak kentzeko.
**b)** Lursail biguna luberritzeko.
**c)** Lurzorua berdintzeko.
**d)** Zuloak egiteko.

204. **Nola deitzen zaio landare baten beheko aldeari eta lurpeko organoari?**

**a)** Sustrai.
**b)** Sustrai-txano.
**c)** Zurtoin.
**d)** Klorofila.

205. **Sustraiak…**

**a)** oinarrizko 2 funtzio betetzen ditu.
**b)** oinarrizko 3 funtzio betetzen ditu.
**c)** oinarrizko 4 funtzio betetzen ditu.
**d)** ez du betetzen oinarrizko funtziorik.

206. **Sustraiak, batzuetan, zenbait egiteko erantsi izaten ditu, hala nola…**

**a)** Izerdia landarearen zati batzuetarantz bidaltzea.
**b)** Hostoei, loreei eta fruituei eustea.
**c)** Elikagaien erreserba egitea.
**d)** Izerdia hostoetarantz bidaltzea.

207. **Zer-nolakoak izan litezke sustraiak?**

**a)** Arruntak, lurpekoak.
**b)** Lurpekoak eta zintzilikariak.
**c)** Arruntak edo lurpekoak eta airekoak.
**d)** Lurpekoak.

208. **Sustrai arrunt edo lurpekoei noiz deritze sortakatu edo faszikulatu?**

**a)** Norabide guztietan hazten direnean, sakonera handiagoan edo txikiagoan.
**b)** Sustrai guztiak berdinak direnean eta zona ia esferiko bat hartzen dutenean.
**c)** Sustraia zurtoinaren ondoren estutzen denean.
**d)** Sustrai bakoitza desberdina denean.

209. **Zer dira aireko sustraiak?**

**a)** Landarearen aireko zatian agertzen direnak eta lurzoruaren mailaren gainean egoten direnak.
**b)** Landarearen aireko zatian agertzen direnak eta lurzoruaren mailaren azpian egoten direnak.
**c)** Landarearen aireko zatian agertzen direnak eta lurzoruaren mailan egoten direnak.
**d)** Lurrean ageri ez direnak.

210. **Zein dira sustraiaren oinarrizko zonak?**

**a)** 2, adarkatze-zona eta hazteko zona.
**b)** 3, adarkatze-zona, zona bilotsua eta hazteko zona.
**c)** 4, adarkatze-zona, zona ileduna, hazteko zona eta luzatzeko zona.
**d)** 2, adarkatze-zona eta zona ileduna.

211. **Zurtoina...**

**a)** Landareen aireko organoetako bat da.
**b)** Landareen organo arruntetako bat da.
**c)** Aireko organoa da, landarea lurrean finkatzen duena.
**d)** Lurpeko organoa da.

212. **Zurtoina argiaren bila hazten da; hau da, lurretik aldentzen da, sustraiak ez bezala:**

**a)** Kasu guztietan.
**b)** Kasurik gehientsuenetan.
**c)** Inoiz ez.
**d)** Lorontzietan bakarrik.

213. **Zurtoinak hainbat irizpideren arabera sailkatu ditzakegu:**

**a)** a) Sendotasuna eta iraupena.
**b)** b) Sendotasuna, iraupena eta kokapena.
**c)** Sendotasuna, iraupena, kokapena eta gogortasuna.
**d)** Iraupena eta gogortasuna.

214. **Zer-nolakoak izan litezke zurtoinak, sendotasunaren arabera?**

**a)** Belarkarak edo zurkarak.
**b)** Belarkarak, zurkarak eta erdi-zurkarak.
**c)** Belarkarak, erdi-belarkarak, zurkarak eta erdi-zurkarak.
**d)** Zurkarak eta belarkarak.

215. **Zer-nolakoak dira zurtoin belarkarak?**

**a)** Samurrak eta malguak.
**b)** Gogorrak eta malguak.
**c)** Bigunak eta malguak.
**d)** Malguak.

216. **Zer-nolakoak dira zurtoin zurkarak?**

**a)** Zurrunak eta gogorrak.
**b)** Zurrunak eta samurrak.
**c)** Samurrak.
**d)** Zurrunak.

217. **Zer-nola deitzen dira oinarrian zurkarak diren zurtoinak, goiko aldean eta adarkatzeetan belarkarak direnak?**

**a)** Erdi-zurkarak.
**b)** Erdi-belarkarak.
**c)** Zurkarak.
**d)** Belarkarak.

218. **Zurtoinak iraupenaren eta tankera horretako beste hainbat irizpideren arabera sailkatu litezke. Zurtoinaren iraupena landarearenarekin bat etortzen da eskuarki. Zenbat iraun ohi du?**

**a)** Urtebete edo bi urte.
**b)** Urtebete, bi urte, iraunkorrak.
**c)** Urtebete, bi urte, iraunkorrak eta saprofitoak.
**d)** Urtebete eta iraunkorrak.

219. **Lurpean horizontalean hazten diren zurtoin batzuen ernamuinak kimuak ateratzen dituzte airera eta hostoak garatzen. Nola deritze zurtoin horiei?**

**a)** Errizoma.
**b)** Tuberkulu.
**c)** Erraboila.
**d)** Pibotatzaile.

220. **Zer da hipokloritoa?**

**a)** Leungarri bat.
**b)** Desinfektatzaile bat.
**c)** Detergente bat.
**d)** Kloro-erregulatzaile txiki bat.

221. **Herbizida botatzeko baliatutako ureztagailua erabil liteke ureztatzeko?**

**a)** Bietarako erabil liteke, arazorik gabe.
**b)** Ondo garbituz gero, bai.
**c)** Segun eta zer-nolako kontuarekin erabiltzen dugun.
**d)** Ez, inoiz ez.

222. **Pezioloaren gihar-ehunek...**

**a)** Hostoa eta zurtoina komunikatzen dituzte, eta sustraiak xurgatutako urari iristen uzten diote.
**b)** Hostoa eta zurtoina komunikatzen dituzte, eta sustraiak xurgatutako mineralei iristen uzten diete.
**c)** Hostoa eta zurtoina komunikatzen dituzte, eta sustraiak xurgatutako mineralei eta urari iristen uzten diete.
**d)** Hostoa eta sustraia komunikatzen dituzte.

223. **Pezioloak edo pedunkulu foliarrak zer norantz orientatzeko gaitasuna du?**

**a)** Hostoa eguzki-argitarantz.
**b)** Hostoa haizearen norabidean.
**c)** Sustraia kanporantz.
**d)** Sustraia lurrerantz.

224. **Nola deitzen dira peziolorik ez duten hostoak?**

**a)** Eseriak.
**b)** Ertzekoak.
**c)** Kaulinarrak.
**d)** Amorfoak.

225. **Nola deitzen da hosto baten goiko aurpegia?**

**a)** Hosto-gainaldea (argia jasotzen duena).
**b)** Hosto-azpialdea.
**c)** Alderantzia.
**d)** Ahurra.

226. **Nola deitzen da hosto baten orriaren beheko aurpegia?**

**a)** Hosto-gainaldea (argia jasotzen duena).
**b)** Hosto-azpialdea.
**c)** Alderantzia.
**d)** Ahurra.

227. **Hostoaren orrian hainbat zulotxo daude, arnasteko eta transpiratzeko. Nola deitzen dira?**

**a)** Nerbiazioak.
**b)** Hosto-puntak.
**c)** Estomak.
**d)** Esporak.

228. **Hostoaren orria hainbat ilarak ildaskatuta egon ohi da. Zeharrargitan ederki ikusten dira, eta honako honetatik irteten dira:**

**a)** Hosto-gainaldetik.
**b)** Hosto-azpialdetik.
**c)** Hosto-puntatik.
**d)** Korolatik.

229. **Hosto askotan, nerbio nagusia erdialdekoa izaten da, eta orriaren puntan amaitzen da. Nola deitzen zaio horri?**

**a)** Hosto-punta.
**b)** Hosto-ertza.
**c)** Zorroa.
**d)** Nerbiazioa.

230. **Nola deitzen zaio hosto-orriaren ingeradari?**

**a)** Hosto-punta.
**b)** Hosto-ertza.
**c)** Nerbiazioa.
**d)** Zorroa.

231. **Hostoek gainerako izaki bizidunek bezala hartzen dute arnasa, oxigenoa hartuz eta karbonoa kanporatuz. Zeren bidez egiten dute hori?**

**a)** Kloroplastoen bidez.
**b)** Estomen bidez.
**c)** Fanerogamoen bidez.
**d)** Petaloen bidez.

232. **Landare loredunek bizitzan behin edo gehiagotan ematen dituzte loreak. Zer beste izen dute?**

**a)** Gimnospermoak.
**b)** Fanerogamoak.
**c)** Floemak.
**d)** Estomak.

233. **Landare loredun gehienek urtero ematen dituzte loreak; haien erreprodukzio-organoak dira loreak, eta barrualdean honako hau fabrikatzeko beharrezko organo guztiak dituzte:**

**a)** Fruitua.
**b)** Hazia.
**c)** Fruitua eta hazia.
**d)** Polena.

234. **Zerez osatzen dira eskuarki loreak?**

**a)** 2 zatiz; bata antzua da eta bestea emankorra.
**b)** 3 zatiz; korola, kaliza eta lore-pedunkulua.
**c)** 2 zatiz; korola eta petaloa.
**d)** 2 zatiz; kaliza eta korola.

235. **Nola deitzen zaio lorearen zatirik ikusgarrienari?**

**a)** Korola.
**b)** Kaliza.
**c)** Lore-pedunkulua.
**d)** Petaloak.

236. **Zein dira korolaren osagaiak?**

**a)** Lorearen zati emankorra estaltzen duten petaloak; hainbat koloretakoak dira.
**b)** Lorearen zati antzua estaltzen duten petaloak; hainbat koloretakoak dira.
**c)** Lorearen zati emankorra estaltzen duten sepaloak; hainbat koloretakoak dira.
**d)** Sepaloak.

237. **Zein da kalizaren funtzioa?**

**a)** Erreprodukzioa.
**b)** Babestea.
**c)** Ongarritzea.
**d)** Elikatzea.

238. **Zeren itxura dauka loreen erreprodukzio-aparatu femeninoak, ginezeo izenekoak?**

**a)** Botilatxo batena.
**b)** Antera batena.
**c)** Inbutu batena.
**d)** Zilindro batena.

239. **Nola zatitzen da karpeloa edo pistiloa?**

**a)** Bi zonatan (estigma eta obarioa).
**b)** Hiru zonatan (estigma, estiloa eta obarioa).
**c)** Lau zonatan (estigma, estiloa, obarioa eta antera).
**d)** Bi zonatan (estigma eta antera).

240. **Karpeloek edo pistiloek botilatxo-itxura edukitzen dute. Non kokatzen da estigma?**

**a)** Pistiloaren goiko aldean (botilatxoaren ahoa da).
**b)** Botilaren lepoan.
**c)** Beheko alde zabalagoan.
**d)** Beheko aldean.

241. **Zein dira erreprodukzio-aparatu maskulinoaren —edo androzeoaren— osagaiak?**

**a)** Estamineak.
**b)** Pistiloa.
**c)** Estigma.
**d)** Filamentuak.

242. **Zer da filamentua?**

**a)** Hari baten moduko zati bat; fina da hasieratik amaierara.
**b)** Hari baten moduko zati fin bat, zeinaren muturrean tontor bat ageri baita.
**c)** Hari baten moduko zati fin bat, non polen aleak sortzen baitira.
**d)** Lorearen zati bat.

243. **Polen aleak zelula sexual...**

**a)** maskulinoak dira.
**b)** femeninoak dira.
**c)** hermafroditak dira.
**d)** mistoak dira.

244. **Non sortzen dira polen aleak?**

**a)** Pistiloan.
**b)** Anteran.
**c)** Estamineetan.
**d)** Hostoetan.

245. **Loreek...**

**a)** Erreprodukzio-aparatu bat dute.
**b)** Bi erreprodukzio-aparatu dituzte.
**c)** Lore batzuek bi erreprodukzio-aparatu dituzte, eta beste batzuek, berriz, bakarra.
**d)** Ez dute.

246. **Nola deitzen da lore bat landarearen zurtoinera lotzen duen ardatza?**

**a)** Pedunkulu foliarra.
**b)** Lore-pedunkulua.
**c)** Pedunkulu kaulinarra.
**d)** Landarearen pedunkulua.

247. **Lorea...**

**a)** Landareen organo femeninoa da.
**b)** Landareen organo maskulinoa da.
**c)** Landareen erreprodukzio-organoa da.
**d)** Ez dago lotuta erreprodukzioarekin.

248. **Zer dira aldaxkak, adar-aldaxkak edo mentu-zotzak?**

**a)** Sexu-erreprodukziorako metodo bat.
**b)** Biderkatze begetalerako metodo bat.
**c)** Erreprodukzio asexualerako metodo bat.
**d)** Biderkatze sexualerako metodo bat.

249. **Zurtoinaren zatiak ebaki egin daitezke eta lurrean sartu, sustraiak emateko. Nolakoak izango dira era horretan sustraitutako landareak?**

**a)** Gurasoen berdinak.
**b)** Gurasoen antzekoak.
**c)** Gurasoez bestelakoak.
**d)** Gurasoen tankera berekoak.

250. **Zeren arabera sailkatzen dira aldaxka motak?**

**a)** Erabilitako landare motaren arabera.
**b)** Horretarako erabiltzen den landarearen zatiaren arabera.
**c)** Haiek landatzeko erabilitako ontzi motaren arabera.
**d)** Neurriaren arabera.

251. **Nola deitzen zaie zurtoin-aldaxkei?**

**a)** Aldaxka kaulinarra.
**b)** Aldaxka erradikularra.
**c)** Aldaxka foliarra.
**d)** Zurezko aldaxka.

252. **Nola deitzen zaie hosto-aldaxkei?**

**a)** Aldaxka kaulinarra.
**b)** Aldaxka erradikularra.
**c)** Aldaxka foliarra.
**d)** Zurezko aldaxka.

253. **Nola deitzen zaie sustrai-aldaxkei?**

**a)** Aldaxka kaulinarra.
**b)** Aldaxka erradikularra.
**c)** Aldaxka foliarra.
**d)** Zurezko aldaxka.

254. **Zein dira aldaxkarik ohikoenak?**

**a)** Zurtoinekoak.
**b)** Hostoetakoak.
**c)** Sustraietakoak.
**d)** Petalokoak.

255. **Zer beste sailkapen egiten da zurtoin-aldaxken barruan?**

**a)** Zur bigunekoa edo zurezkoa.
**b)** Zur bigun, erdizurezko edo zurezkoa.
**c)** Zurtoinekoa, enborrekoa edo adarrekoa.
**d)** Adarrekoa edo enborrekoa.

256. **Eskuarki desberdintze argirik ez baldin badago ere, zur biguneko aldaxkek honako izen hau hartzen dute:**

**a)** Aldaxkak.
**b)** Adar-aldaxkak.
**c)** Mentu-zotzak.
**d)** Ongarria.

257. **Eskuarki desberdintze argirik ez baldin badago ere, zur gogorreko aldaxkek honako izen hau hartzen dute:**

**a)** Aldaxkak.
**b)** Adar-aldaxkak edo mentu-zotzak.
**c)** Zuhaitz-aldaxkak.
**d)** Adar-aldaxkak.

258. **Aldaxkarik ohikoenak zurtoinekoak izaten dira; zur bigunekoak, erdizurezkoak edo zurezkoak bereizten dira, honen arabera:**

**a)** Suberifikazio-maila.
**b)** Lignifikazio-maila.
**c)** Polinifikazio-maila.
**d)** Polifikazio-maila.

259. **Nondik hartzen dira zur biguneko aldaxkak?**

**a)** Zurtoin gazte eta samurretatik.
**b)** Lignifikatzen hasi diren zurtoin gazteetatik.
**c)** Zurtoin heldu lignifikatuetatik.
**d)** Sustraiak dituzten zurtoinetatik.

260. **Noiz hartzen dira zur biguneko aldaxkak?**

**a)** Udaberrian, orduan hasten baita landarea kimu berriak ematen.
**b)** Uda-hasieran, orduan hasten baita landarea kimu berriak ematen.
**c)** Udaberrian edo uda-hasieran, orduan hasten baita landarea kimu berriak ematen.
**d)** Neguan.

261. **Zein da lasterren sustraitzen den aldaxka mota?**

**a)** Zur biguneko aldaxka.
**b)** Erdizurezko aldaxka.
**c)** Zurezko aldaxka.
**d)** Zur gogorreko aldaxka.

262. **Zer aldaxka motaren adibidea litzateke geranioa?**

**a)** Zur bigunekoa.
**b)** Erdizurezkoa.
**c)** Zurezkoa.
**d)** Zur gogorrekoa.

263. **Zein da garairik egokiena erdizurkezko aldaxkak egiteko?**

**a)** Udazkenaren amaiera.
**b)** Negu bete-betean, klima gogorregia ez bada.
**c)** Uda-erdialdetik udazken-hasierara bitartean.
**d)** Udaberria.

264. **Nondik eskuratzen dira egur zurezko aldaxkak?**

**a)** Lignifikatzen hasitako zurtoin helduetatik.
**b)** Zurtoin heldu ez-lignifikatuetatik.
**c)** Zurtoin heldu lignifikatuetatik.
**d)** Zurtoin helduetatik.

265. **Zein da garairik egokiena zurezko aldaxkak egiteko?**

**a)** Udazkenaren amaiera.
**b)** Negu betea, klima gogorregia ez bada.
**c)** Udazkenaren amaiera edo negu betea, klima gogorregia ez bada.
**d)** Uda bakarrik.

266. **Zenbat denbora behar dute zurezko aldaxkek sustraitzeko?**

**a)** 6 eta 9 hilabete bitartean.
**b)** 6 eta 12 hilabete bitartean.
**c)** 12 eta 18 hilabete bitartean.
**d)** 3 eta 6 hilabete bitartean.

267. **Hosto-aldaxkak hosto baten zatietatik ere lortzen dira; metodo hori asko erabiltzen da:**

**a)** Geranio batzuetan.
**b)** Begonia batzuetan.
**c)** Tulipa batzuetan.
**d)** Petunia batzuetan.

268. **Ezkutu-txertaketa edo T-formako begi-txertaketa zera da, begi bat azal eta guzti hartzea…**

**a)** Ezpain-forman, eta txertakaren azalaren ezkutuen azpian sartzea.
**b)** Ezkutu-forman, eta txertakaren azalaren ezpainen azpian sartzea.
**c)** Portzio-forman, eta txertakaren azalaren ezpainen azpian sartzea.
**d)** Ezpain-forman, eta txertakaren azalaren ezkutuen gainean sartzea.

269. **Ezkutu-txertaketa zera da, begi bat dagokion azalarekin hartzea, ezkutu-forman, eta txertakaren azalaren ezpainen azpian sartzea. Horretarako, txertakaren azala.**

**a)** T-formako ebaki batekin harrotu behar da.
**b)** I-formako ebaki batekin harrotu behar da.
**c)** X-formako ebaki batekin harrotu behar da.
**d)** L-erako ebaki batekin harrotu behar da.

270. **Txapa-txertaketa…**

**a)** Azkarragoa eta errazagoa da, ezkutu-txertaketa baino.
**b)** Motelagoa eta zailagoa da, T-formako begi-txertaketa baino.
**c)** Berdina da, ezkutu-txertaketa bezala egiten baita.
**d)** Azkarrena eta zailena da.

271. **Hurbilduzko txertaketan…**

**a)** Ez da beharrezkoa argizaria ematea.
**b)** Lotu eta txertatzeko argizariz estaltzen da guztia.
**c)** Ez da nahitaezkoa lotzea, nahikoa da argizaria ematea.
**d)** Ez dago halako txertaketa motarik.

272. **Nola deitzen dira eskuila luze sintetikoak?**

**a)** Eskuila handiak.
**b)** Hegazkin-hegalak.
**c)** Hegazkin-hegalak edo eskuila handiak.
**d)** Hortzak.

273. **Nola egin ohi da aitzurketa?**

**a)** Eskuarki aurrerantz.
**b)** Eskuarki atzerantz.
**c)** Eskuarki txandaka, aurrerantz eta atzerantz.
**d)** Sigi-sagan.

274. **Zer erabiliko dugu inausketa-hondarrak kargatzeko (zuhaitzetakoak zein zuhaixketakoak izan)?**

**a)** Pala.
**b)** Sardea.
**c)** Pikotxa eta pala.
**d)** Eskuarea.

275. **Inausketa-hondarrak neurri handiko eta zatikatu gabeko adarrak direnean, eskuz kargatu behar ditugu. Ahal dela, nola ipiniko ditugu adarrak?**

**a)** Horizontalean eta ondo helduta, gorabeherarik gabe garraiatzeko.
**b)** Posizio egokian, gorabeherarik gabe garraiatzeko.
**c)** Lodiera handienetik txikienera, gorabeherarik gabe garraiatzeko.
**d)** Posizioak ez dauka garrantzirik garraiatzeari dagokionez.

276. **Inausketa-hondarrak kargatzeko, heskai txikien kasuan, zer erreminta erabiliko dugu?**

**a)** Sardea.
**b)** Eskuarea.
**c)** Nahikoa da erratza pasatzea jasotzeko.
**d)** Pala.

277. **Ureztatzea oinarrizko elementua da landarearen bizitzan. Zeren arabera erabakitzen da ureztatze mota?**

**a)** Lurzoru motaren arabera.
**b)** Landatutako eremuaren ezaugarri geografiko eta klimatologikoen arabera.
**c)** Daukagun landaketa motaren arabera.
**d)** Berdin dio.

278. **Ahal dela, noiz ureztatuko dugu udaberrian eta udazkenean?**

**a)** Goizean, baina ez eguzkiak bete-betean jotzen duenean.
**b)** Goizean, eguzkiak bete-betean jotzen duenean.
**c)** Iluntzean, eguzkia beheratzen denean.
**d)** Gauean.

279. **Ureztatzeko moduen artean, zer erabil dezakegu gainazaleko —edo grabitate bidezko— ureztatze-sisteman?**

**a)** Ureztagailua eta mahuka.
**b)** Aspertsoreak eta difusoreak.
**c)** Tantaz tantakoak.
**d)** Inbutua.

280. **Grabitate bidezko ureztatzearen barruan, ureztagailua da tradizionalena, eta batzuetan ezinbesteko izaten jarraitzen du...**

**a)** Mahuka iristen ez den tokietara eramaten baitu ura.
**b)** Ureztatze-sistema automatikoak erabili ezin diren tokietara eramaten baitu ura.
**c)** Mahukak iristen ez diren edo ureztatze-sistema automatikoak erabili ezin diren tokietara eramaten baitu ura.
**d)** Lorezainak egoki ikusten baitu.

281. **Mahukarekin ureztatzeko...**

**a)** Lehendabizi ura irteten den tokitik gertuen dauden tokiak ureztatuko ditugu.
**b)** Lehendabizi ura irteten den tokitik urrunen dauden tokiak ureztatuko ditugu.
**c)** Lehendabizi parterik garaiena ureztatuko dugu.
**d)** Berdin dio ordenak.

282. **Bai ureztagailuak, bai mahukak, ahoko bat izan behar dute, hainbat neurritako zuloekin, ura euri moduan banatuta iristeko landareetara. Horrekin, zera lortuko dugu...**

**a)** Ura aurreztea.
**b)** Hobeto xurgatzea.
**c)** Lursaila ez hondatzea.
**d)** Bizkorrago xurgatzea.

283. **Honako igorgailu hauek, ahoko baten bidez, ureztatzeko ura distantzia luzera botatzen dute, eta, uraren presio berarekin, errotazio-mugimendu bat egiten dute:**

**a)** Aspertsoreek.
**b)** Difusoreek.
**c)** Tantaz tantakoek.
**d)** Ureztagailuek.

284. **Sistema honek ura oso fin isurtzen du, beti proportzio berean:**

**a)** Aspertsoreak.
**b)** Difusoreak.
**c)** Tantaz tantakoak.
**d)** Ureztagailuak.

285. **Difusoreek...**

**a)** Irismen txikiagoa daukate, baina aspertsoreek baino ur gehiago ematen dute denbora-unitateko.
**b)** Irismen handiagoa daukate, baina aspertsoreek baino ur gehiago ematen dute denbora-unitateko.
**c)** Irismen handiagoa daukate, baina aspertsoreek baino ur gutxiago ematen dute denbora-unitateko.
**d)** Irismen txikiagoa, eta, gainera, ur kantitate txikia ematen dute.

286. **Mikroaspertsio-sistema lore-guneetan, arrosondoetan, eremu txikietan eta tankerakoetan baliatzen da. Nola proiektatzen die ura sistema horrek landareei?**

**a)** Tantaz tanta.
**b)** Txorrota txikien bidez.
**c)** Barreiatuta, euria balitz bezala.
**d)** Presiopean.

287. **Tantaz tantako sistema toki txikietarako erabiltzen da, lore-guneetarako, heskaietarako eta abar. Azken urteetan, asko zabaldu da nekazaritzan. Nola funtzionatzen du?**

**a)** Ahoko batek distantzia luzera botatzen du ureztatzeko ura.
**b)** Hodi batean tantaz tantako batzuk egoten dira txertatuta, ura tantaka emateko.
**c)** Ura oso fin ematen da, presio handian.
**d)** Ura modu jarraituan emateko aspertsoreak dira.

288. **Aitzurra xafla edo lau angeluko pala bat da, burdinazkoa; ertz zorrotz bat du, eta kontrako aldean, berriz, eraztun bat, kirtena sartzeko. Kirtenak palarekin...**

**a)** Angelu laua osatzen du.
**b)** Angelu zorrotza osatzen du.
**c)** Angelu kamutsa osatzen du.
**d)** Angelu zuzena osatzen du.

289. **Hondeaitzurraren eta aitzurraren arteko aldeari dagokionez, lehendabizikoaren lau angeluko pala...**

**a)** Pixka bat kurbatua da, eta luzera handiagoa da zabalera baino.
**b)** Pixka bat kurbatua da, eta zabalera handiagoa du luzera baino.
**c)** Zuzena da, eta luzera handiagoa da zabalera baino.
**d)** Handiagoa da.

290. **Bada hondeaitzur mota bat, pikatxoi-edo deitua. Zer alde dago haren eta hondeaitzur arruntaren artean?**

**a)** Lehenaren orrietako batek sarde-itxura du.
**b)** Lehenaren orrietako batek igeltsero-aitzurraren itxura du.
**c)** Lehenaren orrietako batek aizkora-itxura du.
**d)** Ez dago halako hondeaitzur motarik.

291. **Pala altzairuzko xafla batez osatuta egoten da, eskuarki angeluzuzena edo biribildua, eta kirten zilindrikoa edukitzen du...**

**a)** Eskuarki zurezkoa.
**b)** Inoiz edo behin zurezkoa.
**c)** Inoiz ere ez zurezkoa.
**d)** Burdinazkoa.

292. **Nola deitzen da burdinazko erreminta irmoa, labore-lurretik harriak, adarrak eta objektu arrotzak erretiratzeko erabiltzen dena?**

**a)** Sardea.
**b)** Eskuare zakarra.
**c)** Eskuare fina.
**d)** Zerrotea.

293. **Orri kurbatua eta zurezko kirtena dituen zerrote bat da, eta arruntek (arotzek erabiltzen dituztenek) baino hortz handiagoak izaten ditu. Zein da?**

**a)** Zerrote bizkarduna.
**b)** Inausteko zerrotea.
**c)** Goratzeko zerrotea.
**d)** Lorezain-zerrotea.

294. **Hodi-itxurako erreminta bat da, ebakitzeko ahoa hartzeko arkua egiten duten bi angeluz osatua. Enbor txikiak, adarrak eta zurkaitzak ebakitzeko erabiltzen da. Zein da?**

**a)** Aihotza.
**b)** Arku-zerra.
**c)** Inausteko zerrotea.
**d)** Zerrote bizkarduna.

295. **Zertarako baliatzen dira eskuko guraizeak, esku bakarrarekin erabiltzen direnak?**

**a)** Arrosondoak mozteko.
**b)** Landare txikiak mozteko.
**c)** Arrosondoak eta landare txikiak mozteko.
**d)** Edozer lanetarako.

296. **Nola deitzen da segaketako, inausketako eta abarretako hondarrak jasotzeko erreminta, 4 hortz metaliko edo gehiago eta zurezko kirten luzea dituena?**

**a)** Sardea.
**b)** Txardangoa.
**c)** Sardea edo txardangoa.
**d)** Inauskaia.

297. **Nola deitzen dira lorategietako erratz klasikoak, gaur egun gutxiago erabiltzen direnak?**

**a)** Erratz lauak.
**b)** Adar-erratzak.
**c)** Hagaxka-erratzak.
**d)** Erratz sintetikoak.

298. **Hagaxka metalikoak dituzten erratzak belardiak eta soropila eskobatzeko erabiltzen dira. Zer izaten dute erratz horiek?**

**a)** Hagaxka zapalak, abaniko eran ipinita.
**b)** Hagaxka biribilduak, abaniko eran ipinita.
**c)** Hagaxka zapalak edo biribilduak, abaniko eran ipinita.
**d)** Hagaxka zapalak, V eran ipinita.

299. **Nola deitzen da bihurkin baten tankerako erreminta, lurrean sartzeko eta belar gaiztoen sustraiak errotik ateratzeko erabiltzen dena?**

**a)** Azalatzeko aitzurra.
**b)** Sustrai-ebakitzekoa.
**c)** Jorraia.
**d)** Puntzoia.

300. **Nola deitzen da xafla metaliko batez osatutako erreminta, luzapen kurbatua eta kirtena dituena, eta belar gaiztoak lurretik kentzeko eta landare txikiak aldatzeko erabiltzen dena?**

**a)** Azalatzeko aitzurra.
**b)** Jorraia.
**c)** Birlandatzeko pala.
**d)** Sustrai-ebakitzekoa.

301. **Nola deitzen da eskuko pala txikia, beharrezko substratu kopuru txikiak erretiratzen laguntzekoa, erraboilak zein haziak sartzeko zein aldatzeko erabiltzen dena?**

**a)** Birlandatzeko pala.
**b)** Landatzeko tresna edo sustrai-ebakitzekoa.
**c)** Ereiteko makina.
**d)** Azalatzeko aitzurra.

302. **Nola deitzen da eskuko erreminta txikia, lurrean landaketa-zuloak egiteko erabiltzen dena?**

**a)** Landatzeko tresna.
**b)** Ereiteko makina.
**c)** Landatzeko tresna edo ereiteko makina.
**d)** Jorraia.

303. **Soropila ebakitzeko makinan edo segagailuan, ebakitzeko sistemak ardatz batean mugitzen diren hortzez osatuta dago, eta eztanda-motor batek eraginda dago. Nola egoten dira antolatuta hortz horiek?**

**a)** Plano bertikalean lurrarekiko.
**b)** Plano horizontalean lurrarekiko.
**c)** Plano perpendikularrean lurrarekiko.
**d)** Plano zeiharrean lurrarekiko.

304. **Soropila ebakitzeko makinan edo esku-segagailuan, ebakitzeko sistema zilindro horzdun bat da, eta...**

**a)** Birarazten denean eragiten zaio.
**b)** Bultza egiten zaionean eragiten zaio.
**c)** Altxatzean eragiten zaio.
**d)** Sakatzean eragiten zaio.

305. **Nola deitzen zaio ureztatze bidez ongarritzeari?**

**a)** Ureztapen ongarriduna edo fertirrigazioa.
**b)** Hidroirrigazioa.
**c)** Higloirrigazioa.
**d)** Ongarriketa.

306. **Zer da laia?**

**a)** Pala mota bat.
**b)** Palatxo mota bat.
**c)** Inausketako guraizearen kontraorria.
**d)** Zerra bat.

307. **Nola deitzen da oin beretik sortzen diren zurtoinen, loreen edo buruxken multzoa?**

**a)** Eskutada.
**b)** Pergola.
**c)** Plumula.
**d)** Sustraia.

308. **Zer da periantoa?**

**a)** Lorearen ugalketarako partea.
**b)** Lorearen ugalketarako ez den partea.
**c)** Zurtoinaren eta sustraiaren artean dagoen landarearen partea.
**d)** Loretik urrunen dagoen partea.

309. **Zer zati ditu periantoak?**

**a)** Kaliza eta korola.
**b)** Petaloak eta sepaloak.
**c)** Begiak eta adabetarteak.
**d)** Petaloak eta korola.

310. **Nola deitzen dira hildako substantzia begetalaz elikatzen dira landareak?**

**a)** Gimnospermoak.
**b)** Saprofitoak.
**c)** Tepaloak.
**d)** Makrofagoak.

311. **Tekak lorearen polena hartzen duten poltsak dira. Non daude?**

**a)** Anteran.
**b)** Estamineetan.
**c)** Pistiloan.
**d)** Petaloetan.

312. **Hauetatik zein da ur-kontsumo apaleko landaketa-sistema?**

**a)** Fertirrigazioa.
**b)** Xerolorezaintza.
**c)** Lorezaintza.
**d)** Mahuka.

313. **Zein dira pikatxoiaren edo «azadón de rayo» delakoaren osagarriak?**

**a)** Pala-orri bat, eta U-formako orri bat.
**b)** Aho bat, kurbatu samarra, luzera handiagoa duena zabalera baino.
**c)** Pala-orri bat eta aizkora-orri bat.
**d)** V-formako orri bat.

314. **Nola deitzen zaio aitzur baten ebaketa-ertzaren kontrako aldeari?**

**a)** Aitzur-burua.
**b)** Lepoa.
**c)** Motzondoa.
**d)** Kirtena.

315. **Batez ere zertan dira desberdinak gimnospermoak angiospermoetatik?**

**a)** Obuluak egitura babestuetan itxita dauzkate.
**b)** Obulu biluziak dauzkate.
**c)** Ez daukate obulurik.
**d)** Obuluak txikiagoak dira.

316. **Zer prozedura baliatuko da diametro handiko adarrak inausteko?**

**a)** Hiru ebaketen araua.
**b)** 45 graduko ebaketa.
**c)** Kontrajarritako bi ebaketa.
**d)** Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

317. **Soropil-belardi batean, zein distantzia da egokia 10 m-ko ureztatze-erradioko bi aspertsoreren artean?**

**a)** 5 m.
**b)** 10 m.
**c)** 15 m.
**d)** 20 m.

318. **Zertarako erabiltzen da sardea?**

**a)** Zulatzeko.
**b)** Inausteko.
**c)** Zotalarrotzeko.
**d)** Nibelatzeko.

319. **Zer garai da onena ihartutako, ahuldutako edo erasandako adarrak inausteko?**

**a)** Lozorro-aldia.
**b)** Jarduera-aldia.
**c)** Edozer urte-sasoi.
**d)** Udazkena.

320. **Baieztapen hauetatik, zein da okerra?**

**a)** Laneko higienea zaintzea funtsezkoa da prebentziorako.
**b)** Lan-istripu batek ez du zertan eragin lesio fisiko eta moral bat.
**c)** Lanbide-gaixotasun batek hala jasota egon behar du indarrean den araudian onartutako zerrendan.
**d)** Prebentzioa enpresaren jarduerako fase guztietan zaindu behar da.

321. **Zer kasutan gomendatzen da motzondoa erretiratzea?**

**a)** Berriz landatzea galarazten duenean, edo eraikuntzei edo hirigintza-elementuei traba egiten dienean.
**b)** Beharrezkoa denean gaixotasun infekziosoei aurre egiteko.
**c)** Inoiz ez.
**d)** a eta b erantzunak zuzenak dira.

322. **Aliketen kasuan, hauetatik zein ez da prebentzio-araua?**

**a)** Higadurarik edo koskarik gabeko barailak, eta egoera onean ageri diren kirtenak.
**b)** Egoera onean ageri diren torloju edo larakoak.
**c)** Erreminta koipe edo oliorik gabe edukitzea.
**d)** Hatzak kirtenen artean ipintzea.

323. **Zerra bat erabiltzean, komenigarria da:**

**a)** Pieza tinko finkatzea zerratzen hasi aurretik.
**b)** Orria ez egotea oso tenkatuta.
**c)** Hortzak oso zorrotz ez eegotea.
**d)** Orria zerran ezartzea, kontuan hartuta hortzek kirtenari begira egon behar dutela.

324. **Landare-genero hauetatik, zeinek behar dute pasaporte fitosanitarioa merkaturatu ahal izateko?**

**a)** *Pelargonium sp*.
**b)** *Cotoneaster sp*.
**c)** *Malus sp*.
**d)** Landare guztiek.

325. **Hauetatik, zein da soropil-espezie ez-gramineoa?**

**a)** Agrostisa.
**b)** Arrauka (*Festuca*).
**c)** Dikondra.
**d)** Erantzun bat ere ez da zuzena.

326. **Espezie hauetatik, zein ez da egokia heskaiak egiteko?**

- **a)** Zipres mediterraneoa.
- **b)** Ezpela.
- **c)** Erromeroa.
- **d)** Sahatsa.

327. **Zer hartu behar da kontuan segatzeko makinak hautatzeko?**

- **a)** Segatu beharreko eremuaren dimentsioa.
- **b)** Segatzeko maiztasuna eta garaiera.
- **c)** Oztopoen kopurua eta kokapena.
- **d)** Zuzenak dira denak.

328. **Zein da heskai formalen ezaugarria?**

- **a)** Espezie bakarrekoak dira.
- **b)** Garaiera txikia izaten dute.
- **c)** Forma simetrikoa dute.
- **d)** Irregularrak dira.

329. **Zer landare jotzen du gurgurioak (*Rhynchophorus ferrugineus*)?**

- **a)** Palmondo kanariarra.
- **b)** Datil-palmondoa.
- **c)** Palmondo afrikarra.
- **d)** Cordyline-a.

330. **Zer-nola egiten da gaixotasun kriptogamikoen kontrola soropilean?**

- **a)** Gaixotasunekiko erresistenteak diren espezieak eta barietateak aukeratuz.
- **b)** Neduki handia duen ongarriketa aplikatuz aldian-aldian.
- **c)** Soropilaren drainatzea eta aireztatzea zainduz.
- **d)** a eta c zuzenak dira.

331. **Nola aplikatu behar da herbizida sistemikoa?**

- **a)** Oso fin lainoztatuta, haizerik ez dabilenean.
- **b)** Oso fin lainoztatuta, haizea dabilenean.
- **c)** Lainoztatze-maila ertainarekin, haizerik ez dabilenean.
- **d)** Erantzun bat ere ez da zuzena.

332. **Soropiletarako hazi-nahasketen formulen artean, honako hauek topa ditzakegu:**

- **a)** *Festuca*, *Lolium* eta *Poa* espezieak.
- **b)** *Festuca*, *Lolium* eta *Trifolium* espezieak.
- **c)** *Festuca*, *Lolium* eta *Cynodom* espezieak.
- **d)** a eta c zuzenak dira.

333. **Makinak arriskuak eragingo ditu, honako hauetakoren batek huts eginez gero:**

**a)** Instalazioak.
**b)** Mantentze-lanek. c) Doikuntzak.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

334. **Zer abantaila ditu soropila lurpetik ureztatzeak?**

**a)** Sistema errazagoa da instalatzen.
**b)** Efizientzia handiagoz ureztatzen da. c) Ura aurreztea.
**d)** b eta c zuzenak dira.

335. **Udazkenean, soropilean ongarri minerala botatzeko, zer NKP formula izango da egokiena? a) 15-15-15.**

**b)** 20-3-9.
**c)** 14-14-21.
**d)** 20-0-0.

336. **Zerk eragin dezake soropiletan goroldioa ateratzea? a) Itzal gehiegi izateak.**

**b)** Behar adina ez drainatzeak.
**c)** Lurrazalean PH azidoa izateak.
**d)** Zuzenak dira denak.

337. **Zer dira lainoztagailu eramangarriak?**

**a)** Tratamenduetarako ekipamenduak.
**b)** Ureztatzeko ekipamenduak.
**c)** Motokultoreak.
**d)** Eskuzko sega-makinak.

338. **Zerekin egiten da gaixotasun kriptogamikoen kontrola soropilean?**

**a)** Fungizidekin.
**b)** Akarizidekin.
**c)** Intsektizidekin.
**d)** Herbizidekin.

339. **Zerekin funtzionatzen du nylonezko hari bidezko belar-moztekoa?**

**a)** Gasolinarekin.
**b)** Bateriarekin.
**c)** Sareko elektrizitatearekin.
**d)** Zuzenak dira denak.

340. **Termino hauetatik, zeinek egiten dio erreferentzia landareen erreprodukzio sexualari?**

**a)** Mentu-zotzak.
**b)** Haziak.
**c)** Belaunketak.
**d)** a eta c zuzenak dira.

341. **Zer da landare zurtoingabe bat?**

**a)** Arantzarik gabeko landarea.
**b)** Zurtoinik ageri ez duen landarea.
**c)** Hostorik gabeko landarea.
**d)** Lorerik gabeko landarea.

342. **Nola ureztatu behar dira mintegiak?**

**a)** Mahukarekin.
**b)** Ur langarreztatuarekin.
**c)** Ureztagailuarekin.
**d)** Kapilaritate bidez.

343. **Elementu hauetatik, zein da egokia ureztapen lokalizaturako?**

**a)** Tantaz tantakoa.
**b)** Inundadorea.
**c)** Mikrodifusorea.
**d)** Zuzenak dira denak.

344. **Zer lan-presio izaten du tantaz tantako ureztapen-sistema batek?**

**a)** Bar bat baino gutxiago.
**b)** 1 eta 4 bar bitartean.
**c)** 4 eta 9 bar bitartean.
**d)** 9 bar baino gehiago.

345. **Espezie hauetatik, zeinek dio tolerantzia handiena itzalpeari?**

**a)** *Lampranthus spectabilis*.
**b)** *Tagete patula*.
**c)** *Impatiens walleriana*.
**d)** *Pelargonium peltatum*.

346. **Lurzoru hareatsu batean:**

**a)** Partikulak oso txikiak izaten dira.
**b)** Partikulek hezetasunari eusten dioten konglomeratuak sortzen dituzte.
**c)** Partikulak handitzat hartzen dira.
**d)** Hainbat neurritako partikulak izaten dira nahasian.

347. **Lorategi batean, hau izango da elementu ez-begetal bat:**

**a)** Zzurezko zeharragez osatutako eskailerak.
**b)** Urmael bat, nenufarrekin.
**c)** Iturri bat.
**d)** Hiru erantzunak zuzenak dira.

348. **Terraza bat egin nahi baldin badugu zuhaitz bat dagoen tokian:**

**a)** Baldosak zuhaitz-ipurdiari itsatsita ipiniko ditugu.
**b)** Zuhaitz-ipurdiaren inguruan zirkulu bat utziko dugu agerian, ura eta ongarria ipintzeko.
**c)** Baldosak zuhaitz-ipurdiari itsatsita ipiniko ditugu, eta metro batez estali.
**d)** Zuhaitz-ipurdian, neurri handiko harriak ipiniko ditugu.

349. **Zertarako balio du soropilaren gainean eskarifikadorea pasatzeak?**

**a)** Soropil-haziak ereiteko.
**b)** Aireztapena bermatzeko.
**c)** Uholde bidezko ureztapen-ura zabaltzeko.
**d)** Ez du ezertarako balio.

350. **Soropila aireztatu ondoren:**

**a)** Ona da ongarria botatzea.
**b)** Ez da komeni ongarria botatzea.
**c)** Zapaldu egin behar da.
**d)** Gomendagarria da gainean goroldioa zabaltzea.

351. **Heskaiak jorratu beharrik ez izateko teknika bat:**

**a)** Simaur-geruza bat zabaltzea.
**b)** Heskaiaren hazi berbereko geruza bat zabaltzea.
**c)** Pinu-azalak zabaltzea, bizpahiru zentimetroko geruza bat osatuz.
**d)** Lur lehorra zabaltzea.

352. **Jorraketa-lana, lurra lehor dagoenean, errazagoa izango da.**

**a)** Bezperan lurra erruz ureztatu baldin bada.
**b)** Eguzki bete-betean aritzen bagara.
**c)** Ilundu arte itxaroten badugu.
**d)** Espatula bat erabiltzen badugu.

353. **Lorategi batean, herbizida kimikorik izan ezean, gatz larria zabaltzen badugu bidezidorretan, baldosen artean, hartxintxarraren gainean.**

**a)** Herbizida bizkorra eta merkea da.
**b)** Atzeraezina da.
**c)** Ez du batere balio belar txarrak kentzeko.
**d)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

354. **Zein dira intsektu xurgatzaileen plaga ohikoenak?**

**a)** Landare-zorria.
**b)** Kukurutxa.
**c)** Euli zuria.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

355. **Lorategi bateko heskaietan, bareen eta barraskiloen erasoak galarazteko.**

**a)** Heskaien azpian trikuak bizitzea eta habiak egitea susta dezakegu.
**b)** Igelak erabil daitezke.
**c)** Hegazti harrapariak balia daitezke.
**d)** Erantzun bat ere ez da zuzena.

356. **Bareak eta barraskiloak ez daitezen lorontzi bateko landareetara ingura:**

**a)** Urez bustitzen dira lorontziaren ertzak.
**b)** Errautsak ipintzen dira lorontziaren ertzean.
**c)** Hostoz estaltzen dira lorontziaren ertzak.
**d)** Landare-petaloz estaltzen dira lorontziaren ertzak.

357. **Zertarako erabiltzen da pertikadun motozerra?**

**a)** Garbiketarako.
**b)** Inausketarako.
**c)** Soropilean mantentze-lanak egiteko.
**d)** Lurrari ongarria botatzeko.

358. **Lurrean, zuloa egiteko, aitzurra erabiltzeak:**

**a)** Karga ergonomiko handia eskatzen du.
**b)** Zutik aritzea eskatzen du.
**c)** Besoei eragin gabe aritzea eskatzen du.
**d.- a) eta b) erantzunak zuzenak dira.**

359. **Lorezaintzako erremintak baldintza egokietan gorde behar dira.**

**a)** Barrualdean, giro garbian eta lehorrean.
**b)** Posizio bertikalean.
**c)** Beti garbi, erabili ondoren.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

360. **Zer ezaugarri du usteldurak edo zur hautsiaren gaitzak?**

**a)** Lizuna feltro moduan, eta filamentuak sustraietan.
**b)** Bareen eta igelen erasoa.
**c)** Zuhaitzaren mardultasuna.
**d)** Hostoen hazkundea orokortzea.

361. **Zer da fumagina?**

**a)** Ekialdeko lore bat.
**b)** Intsektuek garraiatutako gaitz bat.
**c)** Zuhaitz tropikal bat.
**d)** Garo-barietate bat.

362. **Zer teknika ekologiko baliatuko dugu, ur-lorategi bateko urmaela inbaditzen ari diren algak kentzeko?**

**a)** Fungizida bat erabili behar da.
**b)** Intsektizida bat erabili behar da.
**c)** Barrera bat egin behar da plastikoz.
**d)** Landare oxigenatzaileak ipini behar dira.

363. **Hosto hilek urmael bateko ura zikintzen dute. Zer egin behar da kentzeko?**

**a)** Aitzurrarekin bilduko ditugu hostoak.
**b)** Eskuarearekin bilduko ditugu hostoak.
**c)** Sarearekin bilduko ditugu hostoak.
**d)** Kanaberarekin bilduko ditugu hostoak.

364. **Lorategi txiki bateko lurra hobeto kontserbatzeko:**

**a)** Eguzkitan utziko dugu lehortzen, eta plastikozko poltsetan ipiniko, harik eta ereiteko garaira arte.
**b)** Heze egon behar du, eta, ondoren, plastikozko poltsetan gordeko dugu.
**c)** Pilatu egin behar da.
**d)** Ez dago ezer egin beharrik.

365. **Erabil daitezke kafe-hondarrak, neurrian, ongarri natural gisa?**

**a)** Bai.
**b)** Ez.
**c)** Urtaroaren arabera.
**d)** Inoiz ere ez.

366. **Asun-urak, lurrean zuzenean erabilita.**

**a)** Ongarri artifizial gisa balio du.
**b)** Ongarri nitrogenodun gisa jarduten du.
**c)** Ongarri kimiko gisa jarduten du.
**d)** Ez du ezertarako balio.

367. **Landare bat aldatu ostean, eman behar zaio ongarririk?**

**a)** Bai.
**b)** Ez.
**c)** Hilabete behintzat itxaron behar da, substratua behar bezala prestatu baldin bada.
**d)** Urtebeteren ondoren.

368. **Noiztik aurrera komeni da arrosondoari aldaxkak ateratzea?**

**a)** Urtarriletik aurrera.
**b)** Otsailetik aurrera.
**c)** Uztailetik aurrera.
**d)** Abendutik aurrera.

369. **Udazkenean landatutako arrosondo bat.**

**a)** Neguan inausi behar da.
**b)** Martxoan inausi behar da, izozte handirik izan ez bada.
**c)** Hilabeteren buruan aldatu behar da.
**d)** Egunero ureztatu behar da.

370. **Arrosondo batetik hurbil baratxuriak landatuz gero.**

**a)** Lurra inerte geratuko da.
**b)** Baratxuria txikiago haziko da.
**c)** Ez du emango baratxuririk.
**d)** Ez da lortuko arrosondoen usaina handitzea.

371. **Zergatik herdoiltzen eta desagertzen dira lilien lore-garak?**

**a)** Ureztatu ez direlako.
**b)** Beti estalita egon direlako.
**c)** Bakterio-usteldura batek jota daudelako, edo onddo batek eragindako gaitzen batek, bestela.
**d)** Gehiegizko hezetasuna dutelako.

372. **Zer koloretakoak izan ohi dira krabelinak nagusiki?**

**a)** Gorriak, horiak eta zuriak.
**b)** Gorriak, berdeak eta lilak.
**c)** Gorriak, urdinak eta berdeak.
**d)** Gorriak, esmeralda-kolorekoak eta granateak.

373. **Zer beste izen dute landare iraunkorrek?**

**a)** Erorkorrak.
**b)** Bizikorrak.
**c)** Hilekoak.
**d)** Aldi baterakoak.

374. **Zer beste izen dute tapiz-landareek?**

**a)** Moketa-landareak.
**b)** Landare erradialak.
**c)** Landare ergonomikoak.
**d)** Lurra estaltzeko landareak.

375. **Zerekin zorroztu behar da laiaren eta azalatzeko aitzurraren alde zorrotza?**

**a)** Lima zimurtsu batekin.
**b)** Lima lau batekin.
**c)** Zerra-lima batekin.
**d)** Plastikozko lima batekin.

376. **Neguan, komeni da ureztatzeko mahukak izozteetatik babestea?**

**a)** Hustu, bildu eta babestutako gune batean gorde behar dira.
**b)** Erabat hustu behar da lainoztagailua.
**c)** Ez dago gorde beharrik, egunero ureztatzen baita neguan.
**d)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

377. **Mahuka batek ihesen bat izango balu.**

**a)** Lehortu egin behar da, eta zinta amerikarraren moduko itsasgarri bat ipini ihesa gertatu den tokiaren bueltan.
**b)** Eguzkitan ipini behar da, harik eta ihesa kauterizatu arte.
**c)** Trapu bat biltzen zaio bueltan.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

378. **Arbola-adarretan metatutako elurte handi batek.**

**a)** Adar gehiago loratzen laguntzen du.
**b)** Pisu-gainkargak adarrak haustea eragin dezake.
**c)** Habitat paregabea sortzen du neguan txorientzat.
**d)** Elurra urtu egiten da adarrekin kontaktuan ipintzean.

379. **Lorategi batean, zer da «soropil-baldosa»?**

**a)** Soropila irteten den plastikozko baldosa bat.
**b)** Soropila irteten den altzairu herdoilgaitzezko baldosa bat.
**c)** Soropila irteten den hormigoizko baldosa zulatu bat.
**d)** Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

380. **Zer landareren aldaxkak ateratzen dira erraz uretan udaberrian?**

**a)** Kaktusarenak.
**b)** Huntzarenak.
**c)** Perrexilarenak.
**d)** Droserarenak.

381. **Noiz ateratzen zaizkio garoari esporangioak, espora izeneko haziak biltzen dituzten poltsatxoak?**

**a)** Udaberrian.
**b)** Udan.
**c)** Udazkenean.
**d)** Neguan.

382. **Noiz eta nola komeni da ereitea ziklamena, lorontzi batera aldatu aurretik?**

**a)** Apiril eta maiatz artean, txilar-lurretan.
**b)** Ekain eta uztail artean, buztin-lurretan.
**c)** Irail eta urri artean, kareharri-lurretan.
**d)** Edozein urte-sasoitan, eta berdin dio zer lurretan.

383. **Zertarako ipintzen zaio zurkaitza landare bati?**

**a)** Zurtoinera itsasteko.
**b)** Zurtoinari eusteko, ito gabe.
**c)** Loreak babesteko.
**d)** Landarea estaltzeko.

384. **Kaktus bat aldatzean arantzek ez ziztatzeko, komeni da:**

**a)** Plastikozko eskularruak erabiltzea.
**b)** Zenbait trapurekin biltzea.
**c)** Zurtoinetik ebakitzea.
**d)** Adaburuko arantzak ebakitzea.

385. **Motokultore bat erabiltzean, zergatik komeni da, ahal den neurrian, lurra heze egotea?**

**a)** Hortzak hobeto irrista daitezen.
**b)** Lurra hobeto ongarritzen delako.
**c)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
**d)** Hauts-lainoak saihesteko.

386. **Eskuz garraiatzean (orga),banakako babes-ekipamendu hauek izan litezke beharrezkoak, besteak beste:**

**a)** Segurtasun-oinetakoak eta eguzkitatik babesteko betaurrekoak.
**b)** Segurtasun-oinetakoak eta larruzko eskularruak.
**c)** Eguzkitatik babesteko betaurrekoak eta larruzko eskularruak.
**d)** Segurtasun-oinetakoak eta artilezko eskularruak.

387. **Noren ardura da banakako babes-ekipamenduak egoera onean gordetzea eta erabili aurretik ikuskatzea?**

**a)** Enpresariarena.
**b)** Arduradunarena.
**c)** Langilearena.
**d)** Fabrikatzailearena.

388. **Zer ekintza dira kaltegarriak fotosintesi-prozesurako?**

**a)** Kutsadura.
**b)** Deforestazioa.
**c)** Birpopulaketa.
**d)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

389. **Hauetatik, zein da hosto erorkorreko zuhaitza?**

**a)** Artea.
**b)** Erramua.
**c)** Olibondoa.
**d)** Almendrondoa.

390. **Sega-makina erabili ostean, beharrezkoa da garbitzea?**

**a)** Bai.
**b)** Ez.
**c)** Ez, automatikoki garbitzen duen gailu bat dauka.
**d)** Egoera meteorologikoaren arabera.

391. **Bada zuzenketa-neurririk, altuerako inausketaren ondoren?**

**a)** Bai.
**b)** Ez.
**c)** Zer urtarotan egiten den.
**d)** Zer eguraldi dagoen inausten denean.

392. **Zer esan nahi dute lanerako eskularruetan ageri diren lau zenbakiek?**

**a)** Neurria.
**b)** Modeloa.
**c)** Fabrikazio-urtea.
**d)** Babes-maila.

393. **Sustraiaren zer partetan xurgatzen dira nutrienteak?**

**a)** Lepoan.
**b)** Sustrai-txanoan.
**c)** Eremu iledunean.
**d)** Sustrai hutseko eremuan.

394. **Hauetatik, zein ez da lorezaintzako oinarrizko egiteko bat?**

**a)** Ureztatzea.
**b)** Ongarritzea.
**c)** Inaustea.
**d)** Marratzea.

395. **Noiz loratzen dira azaleak?**

**a)** Udaberrian.
**b)** Udan.
**c)** Udazkenean.
**d)** Neguan.

396. **Lorezaintzan, zertarako erabiltzen da xaboi potasikoa?**

**a)** Lorategiko izurriteen kontra.
**b)** Lorategiko urmaela garbitzeko.
**c)** Lurra ongarritzeko.
**d)** Ez da erabiltzen lorezaintzan.

397. **Soropilerako izurrite oso kaltegarriak dira:**

**a)** Igelak.
**b)** Ahuntzak larrean.
**c)** Satorrak eta lursaguak.
**d)** Txakurrak.

398. **Lorezaintzarako oso sulfatagailu praktikoa da:**

**a)** Poltsikoko sulfatagailua.
**b)** Motxilako sulfatagailua.
**c)** Gerriko sulfatagailua.
**d)** Sulfatagailu esekia.

399. **Zer da sustrai-lurra?**

**a)** Landareen sustraietan uzten den lur-masa, landarea aldatzen denerako.
**b)** Sustrairik ez duen lur-masa.
**c)** Bloke handitako lur-masa.
**d)** Sustra zati txikiz osatutako lurra.

400. **Nola definitzen da arbolazaintza?**

**a)** Basoak garbitzeko teknika.
**b)** Arbolak lantzeko artea eta teknika.
**c)** Landare jangarriak lantzeko teknika.
**d)** Erantzun bat ere ez da zuzena.

401. **Ozpina:**

**a)** Herbizida ona da.
**b)** Birsortzailea da ureztapenerako.
**c)** Ongarri ona da, konpostarekin nahasita.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

402. **Nenufarra:**

**a)** Aireko landarea da.
**b)** Lurreko landarea da.
**c)** Uretako landarea da.
**d)** Zuhaitz-adarretan hazten den landarea da.

403. **Lorategiko belar gaiztoek:**

**a)** Utzikeria- eta abandonu-itxura ematen dute.
**b)** Arazoak sortzen dituzte, izurriteen eta gaitzen ondorioz.
**c)** Lurreko nutrienteak xurgatzen dituzte.
**d)** Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

404. **Zizare-humusa:**

**a)** Ongarri organikoa da.
**b)** Ongarri inorganikoa da.
**c)** Ongarri artifiziala da.
**d)** Ongarri minerala da.

405. **Zerekin zuzendu behar da lur hareatsuegia?**

**a)** Lur begetalekin.
**b)** Arbola-azalekin.
**c)** Itsas lurrekin.
**d)** Gatz-lurrekin.

406. **Lorategi batean, zer eskatzen dute kaktusek?**

**a)** Basamortuko hondarra.
**b)** Hondartzako hondarra.
**c)** Porositate eta drainatze aparteko lurra.
**d)** Soropilez inguratuta egotea.

407. **Arrokaia lorategi mota berezi bat da, eta hau da haren ezaugarri nagusia:**

**a)** Ondo drainatzen den lursaila.
**b)** Legarren, maskorren eta harri naturalen artean egoten dira landareak.
**c)** Soropil ugari.
**d)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

408. **Zer-nolako barietateak landatu behar dira arrokaia batean?**

**a)** Bizkor hazten direnak eta ongarri ugari behar dutenak.
**b)** Motel hazten direnak eta herrestariak.
**c)** Ur asko behar duten landareak.
**d)** Erantzun bat ere ez da zuzena.

409. **Zer eratako landarea da txilarra?**

**a)** Zurezkoa eta hosto iraunkorrekoa.
**b)** Zurezkoa eta hosto erorkorrekoa.
**c)** Haragijalea eta hosto iraunkorrekoa.
**d)** Igokaria eta hosto erorkorrekoa.

410. **Komeni al da belar artifizialeko soropila aldian behin bustitzea?**

**a)** Bai.
**b)** Ez, artifiziala izanik, hondatu egin baitaiteke.
**c)** Neguan bakarrik, zero azpiko tenperaturekin.
**d)** Urtean behin.

411. **Zer eratako hondarra da egokiena soropil artifiziala betetzeko eta irmotasuna emateko?**

**a)** Hondartzako hondarra.
**b)** Sumendi-hondarra.
**c)** Silize-hondarra.
**d)** Meatze-hondarra.

412. **Zer familiatakoak dira banbuak?**

**a)** Leguminosoak.
**b)** Gramineoak.
**c)** Kruziferoak.
**d)** Solanazeoak.

413. **Jardineretan fruta-arbola txikiak landatzeko:**

**a)** Loreontzi luzexkak behar dira, sakonera txikikoak.
**b)** Sakonera handiko loreontziak behar dira.
**c)** Ezin dira landatu.
**d)** Erantzun bat ere ez da zuzena.

414. **Noiz inausi behar dira arbolak?**

**a)** Lehendabiziko urtetik.
**b)** Landatu eta bost urtera.
**c)** Hosto iraunkorrekoak badira bakarrik.
**d)** Tenperaturaren arabera.

415. **Zer da osasun-inausketa?**

**a)** Zuhaitz-adarrak estaltzea hotz egiten duen garaietan.
**b)** Kimu txikiak ebakitzea zuhaitzetan.
**c)** Hainbat agente patogenok izurritutako adarrak ebakitzea.
**d)** Ilbeheran inaustea.

416. **Heriotzorria zuhaixka-formako landare bat da:**

**a)** Sendatzeko propietate handiak ditu.
**b)** Sukaldaritzarako propietate handiak ditu.
**c)** Oso pozoitsua da.
**d)** Urmaeletan irteten da.

417. **Txertaketa bat egiteko.**

**a)** Landare baten begia edo adarra soldatu behar da txertakara, beste landare bat osatzeko.
**b)** Likido bizkortzaile bat txertatu behar da sustraian.
**c)** Zurtoin bat txertatzen da sustraian.
**d)** Adar bat sartzen da lurrean, landaretik 5 cm-ra.

418. **Nolakoak izan daitezke aldaxkak?**

**a)** Sustrai eta hostokoak.
**b)** Zurtoin eta hostokoak.
**c)** Sustrai eta zurtoinekoak.
**d)** Erantzun bat ere ez da zuzena.

419. **Hauetatik, zein da hormak estaltzen dituen landare igokari bat?**

**a)** Indi-kanabera (*Canna*).
**b)** Gurbitza (*Arbustus Unedo*).
**c)** Pasio-lorea (*Plasiflora Caerulea*).
**d)** Nartzisoa (*Narcisus Pseudonarcissus*).

420. **Heskaiak egiteko landare-espezieen artean dago:**

**a)** Batata.
**b)** Begonia.
**c)** Kamamila horia.
**d)** Tipulatxa.

421. **Batez ere kirol-instalazioetan baliatzen den soropil-modalitatea:**

**a)** Belar horiko soropila.
**b)** Lur pikortatuko soropila.
**c)** Belar artifizialeko soropila.
**d)** Mendafin-soropila.

422. **«Askimotz-soropila» modalitatea egokia da:**

**a)** Eremu hezeetarako.
**b)** Eremu lehorretarako.
**c)** Eremu tropikaletarako.
**d)** Basamortu-eremuetarako.

423. **Norako moduko soropila da Agrostisa (*Agrostis estolonifera*)?**

**a)** Klima hotzetarako.
**b)** Klima epeletarako.
**c)** Klima tropikaletarako.
**d)** Klima mediterraneorako.

424. **Zer izenekin ezagutzen da motoaitzurra deritzon makina?**

**a)** Asto eroa.
**b)** Zaldi zoroa.
**c)** Zezen basatia.
**d)** Mando mekanikoa.

425. **Hauetatik zein dira barneko landareak, kanpoan ere egon daitezkeenak?**

**a)** Azalea eta gardenia.
**b)** Huntza eta hiazintoa.
**c)** Zipresa eta huntza.
**d)** Mitxoleta eta bitxilorea.

426. **Aktinida hormak estaltzen dituen landare igokari bat da. Noiz bihurtzen dira gorrixka aktinidaren hostoak?**

**a)** Udaberrian.
**b)** Udan.
**c)** Udazkenean.
**d)** Neguan.

427. **Animalia-jatorriko ongarri organikoa da (simaurra):**

**a)** Minda.
**b)** Oilo-zirina.
**c)** Uso-zirina.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

428. **Arkorotza animalia-jatorriko ongarri organikoa da. Zer dira zehazki?**

**a)** Txerri-aziendaren gorotzak.
**b)** Ardi- eta ahuntz-aziendaren gorotzak.
**c)** Hegazti-azienda zirinak.
**d)** Zaldi-aziendaren gorotzak.

429. **Zertan datza aldaxka bidez ugaltzea?**

**a)** Jatorrizko landarearen zati txiki batetik (zurtoina, hostoa edo sustraia) beste landare bat sortzea .
**b)** Beste landare bat osorik sortzea, inausketa baten ondotik.
**c)** Beste landare bat osorik sortzea, landare berriak modu zentrokidean ereinda.
**d)** Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

430. **Hauetatik, zein da landareak erreproduzitzeko eta biderkatzeko teknika bat?**

**a)** Belaunketa.
**b)** Txertaketa.
**c)** Hosto bidezko ugalketa.
**d)** Aldaxkatzea.

431. **Hauetatik, zein da lorategi baterako belar aromatiko bat?**

**a)** Sarrazenoa.
**b)** Albaka.
**c)** Venus euli-jalea.
**d)** Drosera.

432. **Zer habitatetako landarea da huntza?**

**a)** Eguzkitakoa.
**b)** Erdi-itzal eta itzaletakoa.
**c)** Barrukoa.
**d)** Mendi-tontorretakoa.

433. **Noiz aktibatzen eta hazten da berriro ere soropila?**

**a)** Udaberrian.
**b)** Udan.
**c)** Udazkenean.
**d)** Neguan.

434. **Noiz segatzen da maizen soropila?**

**a)** Udaberrian.
**b)** Udan.
**c)** Udazkenean.
**d)** Neguan.

435. **Noiz komeni da soropila ebakitzea?**

**a)** Egunero, goizean eta iluntzean.
**b)** Lehor dagoenean.
**c)** Bustita dagoenean.
**d)** Noiznahi, berdin dio.

436. **Zein izango da makina egokia ezponda bateko soropila ebakitzeko?**

**a)** Traktore txiki bat.
**b)** Motoiatzur bat.
**c)** Sasi-garbitzeko makina.
**d)** Fardo-makina.

437. **Noiz komeni da ereitea lurpean fruitua ematen duten landareak?**

**a)** Ilbete eta ilberri bitartean.
**b)** Ilbehera eta ilberri bitartean.
**c)** Ilgora eta ilbehera bitartean.
**d)** Ilgora eta ilberri bitartean.

438. **Zer da konposta?**

**a)** Materia organiko deskonposatu eta birziklatua.
**b)** Deshidratatu beharreko materia inorganikoa.
**c)** Materia solidoa.
**d)** Ongarri artifiziala.

439. **Zertarako baliatzen da potasio nitratoa?**

**a)** Izurriteak deuseztatzeko.
**b)** Lorezaintzan apaingarri gisa.
**c)** Intsektuak uxatzeko.
**d)** Landare-ongarritarako.

440. **Ongarriek:**

**a)** Izurriteak akabatzen dituzte.
**b)** Nutrienteak ematen dizkiote lurrari, landareak elikatzeko.
**c)** Ez dute erabilerarik lorezaintzan.
**d)** Barazkietarako balio dute, baina ez lorategi bateko landareetarako.

441. **Zer adierazten du ongarri-bilgarrietako etiketetan ageri den NPK kodeak?**

**a)** Bilgarriak duen nitrogeno-, potasio- eta fosforo-proportzioa.
**b)** Bilgarriak duen gatz-, kaltzio- eta fosforo-proportzioa.
**c)** Bilgarriak duen hazi-, nitrato- eta ur-proportzioa.
**d)** Bilgarriaren pisua.

442. **Ongarri organikoek:**

**a)** Hezetasuna ematen diote lurrari.
**b)** Lurraren tenperatura erregulatzen dute.
**c)** Lurra harroago bihurtzen dute; hala, testura hobetzen dute.
**d)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

443. **Lursail bateko belar gaiztoek:**

**a)** Ura, argia eta nutrienteak osten dizkiete landareei.
**b)** Landatutako beste landareei haztea eta garatzea galarazten diete.
**c)** Gainerako landareei garatzen laguntzen diete.
**d)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

444. **Zer da «jorratzea»?**

**a)** Belarrak eta karduak ereitea.
**b)** Karduak eta lurrerako bestelako belar gaiztoak erauztea.
**c)** Belarra lursail batetik bestera aldatzea.
**d)** Belarra eta lore-landareak lursail batean batzea.

445. **Peonia iraunkorra lorategiko landarea.**

**a)** Zuhaixka erakoa da, eta ez da 2 metro luze baino handiagoa izaten.
**b)** Inbaditzailea da, eta bizkor hazten da.
**c)** Bakartia da, eta neguan loratzen da.
**d)** Horia da.

446. **Zeren bidez landa daiteke soropila?**

**a)** Haziak ereinda.
**b)** Zotalak ipinita.
**c)** Golde belarriduna erabilita.
**d)** a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

447. **Hauek dira landare angiospermoen organo begetatiboak:**

**a)** Sustraia, zurtoina eta hostoak.
**b)** Sustraia, zurtoina eta enborra.
**c)** Sustraia, adarra eta hostoak.
**d)** Sustraia, aldaxka eta hostoak.

448. **Zer-nola gertatzen da landare angiospermoen ugaltze-funtzioa?**

**a)** Adarren eta loreen bidez.
**b)** Loreen eta fruituen bidez.
**c)** Erraboilen eta loreen bidez.
**d)** Adarren eta hostoen bidez.

449. **Zein da angiospermo izenaren jatorria?**

**a)** Grekozko *angion* (ontzia) eta *sperma* (hazia).
**b)** Grekozko *angio* (hodia) eta *perma* (hezea).
**c)** Grekozko *angi* (azala) eta *perma* (hezea).
**d)** Ez dator grekozko termino batetik.

450. **Zer organo begetatibo arduratzen da fotosintesia egiteaz eta ura eta gasak atmosferarekin trukatzeaz?**

**a)** Sustraia.
**b)** Zurtoina.
**c)** Hostoa.
**d)** Hiruretako bat ere ez.

451. **Zer erabiltzen da udazkenean zuhaitzetatik eroritako hostoak biltzeko?**

**a)** Rotabatorea.
**b)** Fardo-makina.
**c)** Sega-makina.
**d)** Xurgatzeko eta haize emateko makina.

452. **Zertarako balio dute belarri-babesek makinak erabiltzean?**

**a)** Hotsetik isolatzeko.
**b)** Erabiltzailea presio akustikotik babesteko.
**c)** Erabiltzailea makinek sortzen dituzten maiztasunetatik babesteko.
**d)** Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

453. **Motozerra…**

**a)** Eskuz erabiltzeko erreminta bat da.
**b)** Bentzenoa erabiltzen du erregai gisa.
**c)** 15 eta 20 kilo arteko pisua izan ohi du.
**d)** Potentzia eskaseko erreminta da.

454. **Zer da arrauka?**

**a)** Konifera-genero bat.
**b)** Gramineo-genero bat.
**c)** Junipero-genero bat.
**d)** Liliazea-genero bat.

455. **Lorategi batean, heskaiak:**

**a)** Hautsa botatzen du.
**b)** Txoriak uxatzen ditu.
**c)** Haizetatik babesten du, eta isolatu egiten du.
**d)** Bistako adreiluz eraikitzen da.

456. **Noiz inausten dira arrosa igokariak?**

**a)** Udaberrian.
**b)** Udan.
**c)** Udazkenean.
**d)** Neguan.

457. **Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein den zuzena:**

**a)** Luberritzea eta sasi-garbitzea jarduera berbera dira lorezaintzan.
**b)** Luberritzea lorezaintzan egiten den jarduera bat da: lurrean zuloak egiten dira, haietan landatu ahal izateko.
**c)** Sasi-garbitzea lorezaintzan egiten den jarduera bat da: lurrean zuloak egiten dira, haietan landatu ahal izateko.
**d)** Luberritzea lorezaintzan egiten den jarduera bat da: landare herrestariak eta sasiak erretiratzea.

458. **Lurzoru hareatsua:**

**a)** Bizkor lehortzen da, eta nekez gordetzen ditu oligoelementuak.
**b)** Poliki-poliki lehortzen da.
**c)** Oso ondo gordetzen ditu oligoelementuak.
**d)** 7 baino pH apalagoa dauka.

459. **Zertan datza lurrazaleko ureztapena?**

**a)** Lurperatutako eta erdilurperatutako hodiak behar ez dituen ureztapen dinamikoa, induskatutako zangak, lurraren maldak edo mahukak baliatzen dituena.
**b)** Erdilurperatutako hodiak erabiltzen dituen ureztapena, uraren tanta-jarioa ahalbidetzen duena.
**c)** Ura euri gisa aplikatzen duen ureztapen mota, gainazal osoa bustitzen duena.
**d)** Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

460. **Zer da palmondo nanoa?**

**a)** Palmondoaren barietate bat.
**b)** Lorezaintzako erreminta bat.
**c)** Fruta bat.
**d)** Palmaren fruitua.

461. **Sumila eta arrabola lorezaintzako erremintak dira. Zertarako baliatzen dira?**

**a)** Induskatzeko.
**b)** Lurra garbitzeko.
**c)** Landatzeko eta ereiteko.
**d)** Segatzeko.

462. **Oro har, abuztuan, zer gomendatzen da lorezaintzan?**

**a)** Goizean goiz ureztatzea eta arrosak inaustea.
**b)** Arrosak landatzea.
**c)** Urteko landare igokariak ereitea.
**d)** Soropila ongarritzea.

463. **Jorratzea lorezaintzan egin ohi den jarduera bat da. Zertan datza?**

**a)** Hazi edo aldaxka bat lurrean ereitea.
**b)** Lurra irekitzea, bertan ura sartzeko.
**c)** Lurra lehor dagoela harraskatzea, lurzoruarekiko perpendikularrean eta zentimetro bateko sakoneran, eguzkiak lehortutako belar gaiztoak ebakitzeko.
**d)** Lurra lantzea, zokorrak banatzeko.

464. **Zein dira sustrai-sistemaren (landare baten sustrai multzoaren) funtzioak?**

**a)** Fotosintesia.
**b)** Lurpeko esplorazioa.
**c)** Ugalketa.
**d)** Xurgatzea, ainguratzea eta biltegiratzea.

465. **Monokotiledoneoetan, zer izen du sustrai-sistemak (landare baten sustrai multzoak)?**

**a)** Pibotatzailea.
**b)** Endomikorriza.
**c)** Aireko sustraiak.
**d)** Faszikulatua.

466. **Non topatzen dira hazkunde sekundarioko sustraiak (zura)?**

**a)** Garoetan.
**b)** Monokotiledoneoetan.
**c)** Dikotiledoneoetan.
**d)** Gramineoetan.

467. **Zer da begia?**

**a)** Loreak txertatzen diren eremua.
**b)** Hostoak txertatzen diren eremua.
**c)** Sostengu-ehuna.
**d)** Babes-ehuna.

468. **Dikotiledoneoetan, zer izaten dute hostoek?**

**a)** Filodioak.
**b)** Zorroa eta lamina.
**c)** Pezioloa eta lamina.
**d)** Kladodioak.

469. **Zer dira nerbiazioak?**

**a)** Zurtoineko bala baskularrak.
**b)** Laminetako bala baskularrak.
**c)** Sustraiko bala baskularrak.
**d)** Tuberkuluetako balak.

470. **Zerk bereizten ditu monokotiledoneoak dikotiledoneoetatik?**

**a)** Hosto zorrogileak izateak.
**b)** Tuberkulu erradikalak izateak.
**c)** Estoloiak izateak.
**d)** Lore antzuak izateak.

471. **Zer bi talde handitan banatzen da landare-erreinua?**

**a)** Kriptogamoak eta fanerogamoak.
**b)** Kriptogamoak eta burrunbatsuak.
**c)** Kriptonitak eta fanerogamoak.
**d)** Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

472. **Zein da landareen horma zelularraren egitekoa?**

**a)** Fotosintesia egitea.
**b)** Gas-trukea kontrolatzea.
**c)** Arnasketa zelularra.
**d)** Zelulei forma eta landareari sostengua ematea.

473. **Landareen horma begetalaren % 70 inguru:**

**a)** Ura da.
**b)** Proteina da.
**c)** Kromatina da.
**d)** Zelulosa da.

474. **Landarearen konposatu batzuen egitekoa polinizatzaileak erakartzea da, parasitoak uxatzea edo akabatzea, eta gaixotasun infekziosoak prebenitzea. Zein da haien izena?**

**a)** Konposatu primarioak.
**b)** Konposatu sekundarioak.
**c)** Konposatu tertziarioak.
**d)** Konposatu kuaternarioak.

475. **Zer dira antinutrienteak?**

**a)** Lurreko mineralak.
**b)** Gizakietan efektu haluzinogenoak sortzen dituzten alkaloideak.
**c)** Landarea patogeno baten erasopean dagoen garaian sortzen diren produktu kimikoak.
**d)** Kalitate txarreko ongarriak.

476. **Loreak ugalketa-ehunen eta ehun antzuen multzo bat dira. Nola taldekatzen dira?**

**a)** Balatan.
**b)** Faszikulutan.
**c)** Lukutan.
**d)** Bertizilotan.

477. **Zein dira lorea babesteaz arduratzen diren bertizilo antzuak?**

**a)** Filamentua eta antera.
**b)** Ginezeoa eta androzeoa.
**c)** Kaliza eta korola.
**d)** Zotzak.

478. **Zein dira bertizilo emankorrak edo sexualak?**

**a)** Filamentua eta antera.
**b)** Ginezeoa eta androzeoa.
**c)** Kaliza eta korola.
**d)** Zotzak.

479. **Loredun landareen ugalketan, zer da fruitua?**

**a)** Lore zimela.
**b)** Obario ernaldua eta heldua.
**c)** Polinizazio-prozesua.
**d)** Obario gaztea.

480. **Zeri deitzen diogu zura?**

- **a)** Zuhaitz baten parenkima elkartuari.
- **b)** Zuhaitz baten parenkima erradialari.
- **c)** Zuhaitz baten zurtoin primarioari.
- **d)** Adarrik gabe ebakita utzitako zuhaitz baten enborrari edo adar lodiari.